

II.

DOKUMENTU OPERATIBOA

ERRONKA DEMOGRAFIKOA

2030  ERAKO EUSKAL ESTRATEGIA

2022ko ekainaren 21a

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Sinergia... Auzolana

Sinergia da sistema baten zatiek, modu isolatuan jardun beharrea, modu itunduan egiten dutenean lor daitekeen balio positibo erantsia.

Definizio horrek bat egiten du Auzolana kontzeptuaren egungo adierarekin: auzokide guztien artean zereginak partekatuz egindako lana.

Aurkibidea

Sarrera.

Lehen zatia. Abiapuntua.

1. Azken urteetako esperientziaren ikaskuntzak.
2. Prospekzio soziologikoko azterlanen ondorio nagusiak.
3. Irizpide gidariak.
4. Esparru operatiboa.

Bigarren zatia. Jarduera-plana.

1. Lehen atala. Jarduera berriak bultzatzea, epe laburrerako eragin-irizpidearekin.

- 1. jarduera. Ardurapeko seme-alabengatiko zuzeneko laguntzak handitzea.
- 2. jarduera. Gazteen ekintzailtza-, prestakuntza- edo etxebizitza-proiektuetarako mailegu-programa.
- 3. jarduera. 0-2 urte bitarteko etaparen doakotasuna, Haurreskolak Partzuergoaren bidez.
- 4. jarduera. Ikuspegi demografikoaren arau-zeharkakotasuna.

2. Bigarren atala. Ibilbide luzeko inpaktu-irizpidearekin abian dauden jarduerak indartzea.

- I. ardatza: jarduera estrategikoa: gazteen emantzipazioa.
 1. Esparrua.
 2. Emantzipazio-ibilbideei laguntza pertsonalizatua emateko irizpideak eta jarduerak.
 - 5. jarduera. GAZ diseinatzea eta abian jartzea.
 3. Etxebizitzaren arloko irizpideak eta jarduerak.
 - 6. jarduera. Gaztelagun programa zabaltzea.
 - 7. jarduera. Pilotaje berritzaileak abian jartzea.
 4. Enpleguaren arloko irizpideak eta jarduerak.
 - 8. jarduera. Gazteen enplegurako talka-plana bultzatzea.
 - 9. jarduera. Txanda-plana diseinatzea.
 - 10. jarduera. Lan Ikuskaritzako kanpainen jarraipena.
 5. Prestakuntzaren eta laneratzearen arloko irizpideak eta jarduerak.
 - 11. jarduera. Prestakuntza eta, bereziki, Lanbide Heziketa eta Unibertsitate-Heziketa Duala bultzatzea, nagusiki, industria-sektorean emakumeek duten parte-hartzeari erreparatuta.
 - 12. jarduera. Lan-merkatuko beharren diagnostikoa eguneratzea.
 6. Garraio publikoko irizpideak eta jarduerak.
 - 13. jarduera. Tarifak egokitzea.
- II. ardatza: jarduera estrategikoa: familia-proiektuak eraikitzea
 1. Esparrua.
 2. Haur eta familiei laguntzeko irizpideak eta jarduerak.

- 14. jarduera. Haurrak bermatzeko programa bat diseinatzea eta abian jartzea.
- 15. jarduera. Guraso bakarra izateari buruzko txostena egitea.
- 3. Kontziliazioaren arloko irizpideak eta jarduerak.
 - 16. jarduera. Aitatasun- eta amatasun-baimenen luzapena.
 - 17. jarduera. Adingabeen adina luzatzea adingabeak zaintzeko kontratazioan.
 - 18. jarduera. Ordainsari-berdintasunari buruzko kanpainei eta berdintasun-planei eustea.
- III. ardatza: jarduera estrategikoari buruzkoa: adinekoen bizitza autonomia eta osoa sustatzea.
 1. Esparrua.
 2. Irizpideak eta jarduerak zahartze osoaren eta osasungarriaren esparruan.
 - 19. jarduera. Adinekoekin euskal estrategia bultzatzea.
 - 20. jarduera. Euskadi Lagunkoia Sustraietatik indartzea.
 3. Zainketen arloko irizpideak eta jarduerak.
 - 21. jarduera. Proiektu pilotuak aktibatzea.
 - 22. jarduera. Arrisku soziosanitarioko faktoreak detektatzea.
 - 23. jarduera. Belaunaldi-erreiboko zikloa kudeatzeko estrategia diseinatzea.
- IV. ardatza: jarduera estrategikoa: migranteen gizarteratzea.
 1. Esparrua.
 2. Migratzaileak gizarteratzeko irizpideak eta jarduerak.
 - 24. jarduera. Migrazioarako Euskal Itun Sozialaren garapena eta urteko ebaluazioa.
 - 25. jarduera. Transferentzia lehenestea asilo-migrazioaren arloan, eta migratzaileak hartzeko eta integratzeko euskal ereduak diseinatzea.
 3. Gizarteratzearen eta laneratzearen eta mugikortasunaren arloko irizpideak eta jarduerak.
 - 26. jarduera. Talentua atxikitze, garatzeko eta erakartzeko programa bat abian jartzea.
 - 27. jarduera. Euskarri Estrategiaren garatzea.

3. Hirugarren atala. Zeharkako jarduera-ildoak.

- 1. ildoak, zeharkako jarduerak: landa-balioa handitzea.
 1. Esparrua.
 2. Jarduerak.
 - 28. jarduera. Landa Garapeneko Legea onartzea.
 - 29. jarduera. Landa-ingurunearekin lotzeko pizgarriei buruzko azterlan egitea.
- 2. ildoak, zeharkako jarduerak: prospekzioa, dibulgazioa eta komunikazioa
 1. Esparrua.
 2. Jarduerak.
 - 30. jarduera. Urteko prospekzio-, dibulgazio- eta komunikazio-plan bat garatzea.
 - 31. jarduera. Aldizkako azterlan prospektiboak egitea.
 - 32. jarduera. Erronka demografikoak enpleguan dituen ondorioen azterketa bultzatzea.
 - 33. jarduera. Baliabideen gida bat egitea eta zabaltzea.
- 3. ildoak, zeharkako jarduerak: aurrekontua, jarraipena eta ebaluazioa.
 1. Esparrua.
 2. Jarduerak.

- 34. jarduera. Aurrekontuaren isla.
- 35. jarduera. Urteko jarraipen-memoriak egitea.
- 36. jarduera. Ebaluazio-prozesuak bultzatzea.

Eranskina. Erronka demografikorako 2030 Euskal Strategiaren aginte-taula integrala.

Sarrera

Egoera demografikoa lehentasunezko kezka da, bai tokiko ikuspegitik, bai ikuspegi globaletik. Nazio Batuen 2030 Agendaren ikuspegi estrategikoaren parte da. Belaunaldien arteko elkartasuna eta lurralde-kohesioa epe ertain eta luzeko eraldaketa-prozesuak dira.

EBk ere azpimarratu du demografia-desoreka gero eta handiagoa dela datozen urteetako makrojoeretako bat. EBko Kontseiluak, *erronka demografikoen aurrean jarraitu beharreko bidea* izeneko dokumentuan, politika demografikoen esparru bat egiteko, mantentzeko eta eguneratzeko eskatu du, gizarte-solaskideen laguntzarekin.

Espainiako Gobernuaren kasuan, *2030erako Estrategia nazionala* dokumentuak erronka demografikoaren aurrean gai hori planteatzen du gizarte- eta lurralde-kohesioari heltzeko eta pertsona guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna bermatzeko eskakizun gisa.

Euskadi, Espainiako Estatuarekin eta Italiarekin batera, ugalkortasunari eta jaiotza-tasari buruzko datu baxuenak eskaintzen dituzten Europako herrialdeen artean dago. Paradoxikoa bada ere, 50eko hamarkadaren erdialdetik joan den mendeko 70eko hamarkadara arte erregistratutako eztanda demografikoak, (baby boom moduan ezaguna dena), 2030. urtean gehien haziko den adin-tartea adierazten du. Belaunaldi horretako seme-alabak dira gaur egun emantzipatzeko eta, hala badagokio, nahi duten seme-alaba kopurua nahi dutenean edukitzeko zailtasunak dituztenak.

Euskal erakundeek egindako bidea

Azken urteotan, euskal erakundeek zenbait jarduera gauzatu dituzte, zuzenean edo zeharka, demografiaren errealitatean eragina izan dutenak, politika publiko aitzindarien eta berritzaileen bidez, familiei, kontziliazioari, erantzukidetasunari, enpleguari, etxebizitzari edo gizarte-babesari zuzenduta.

Adibiderik esanguratsuena 2018ko urtarrilean Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta EUDELeK sinatutako *Familien eta Haurren aldeko Euskal Ituna* da. Itun hori aldez aurretik aho batez onartu zen Familiaren Euskal Kontseiluan. Haur eta familientzako politiken ibilbide-orria da, eta, besteak beste, *Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Planean* gauzatu zen.

Plan horrek politiken pakete koordinatu bat antolatu zuen bi helbururi erantzuteko: alde batetik, jaiotza-tasa txikiak lehengoratzea, eta, batez ere, pertsonak familia-proiektua hastea eta nahi adina seme-alaba izatea eragozten duten oztopoen iraunkortasuna; eta, bestetik, desberdintasunaren belaunaldien arteko transmisioa prebenitzea eta seme-alabak dituzten familien pobrezia-egoerak ahalik eta gehien murriztea.

Eusko Jaurlaritzaren XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren arabera, erronka demografikoa hamar herri-helburuetako bat da. Bere konpromiso espezifikoaren artean, *2030erako euskal estrategia* idaztea eta bultzatzea aurreikusten du arlo horretan, eta Lehendakaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusian uzten du hori egiteko koordinazioa.

Helburu programatiko horrekin bat etorritik, 2020ko urriaren 29an, legez besteko proposamen baten bidez, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari planteatu zion sailen eta erakundearen arteko erronka demografikoari buruzko plan bat egiteko beharra, besteak beste, jaiotza-tasa sustatzeko, lana eta familia uztartzen laguntzeko, zahartze aktiboa bultzatzeko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra sustatzeko eta landa-eremuko despopulazioaren aurka borrokatzeko politika publikoak garatzeko.

Estrategia hori onartzeko prozesua

Bi aurreikuspen horiekin bat etorriz, 2021. urtearen hasieratik, Eusko Jaurlaritzak erronka demografikoari buruzko deliberazio-prozesu bat bultzatu zuen. Lehenengo etapa, ekainera arte, sailen artekoa izan zen, eta bigarrena, 2021eko azarora arte, erakundeartekoa foru aldundiekin. Hamaika hilabete horietan sortutako dokumentazioak lan-dokumentu izaera hartu zuen. Hau da, une horretan oraindik osagarriak izateko irekita daude.

2021eko abenduaren 14an, dokumentazio hori Gobernu Kontseiluetan aurkeztu zen, bai foru aldundietan, bai Eusko Jaurlaritzan, jakinaren gainean egon zedin, eta Eusko Legebiltzarrera eta EUDELera bidali eta jendaurrean jarri zen. Harrezkero, 2022ko martxoaren 31ra arte, ekarpenak jasotzeko aldi bat ireki zen, bai erakundeen aldetik, bai gizarte-eragileen eta herritarren aldetik.

Jasotako ekarpenen artean, nabarmentzekoa da EUDELen Batzorde Exekutiboak martxoaren 10ean erabaki zuela Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren oinarrien proposamen-dokumentua baliozkotzea, berreskuratze demografikoaren bidari ekiteko abiapuntu gisa.

Prozesu horren esparru kronologikoan, Eusko Legebiltzarrak osoko bilkura monografikoa deitu zuen 2022ko maiatzaren 18an, hamarkada batean indarrean egongo den Estrategia Demografikoaren zuzendaritza, lehentasunak eta ekimen garrantzitsuenak legebiltzar-taldean artean eztabaidatu, partekatu eta zehazteko.

Eusko Jaurlaritzak iragarri zuen bere asmoa zela Legebiltzarreko eztabaida horretatik sortutako ebazpenak Estrategian sartzea. Azkenik, 74 ebazpen onartu ziren, eta horietako asko oposizioko legebiltzar-taldeen ere aurkeztu edo babestu zituzten.

74 ebazpen horiek heterogeneoak dira edukiari dagokionez. Batzuk printzipio, helburu edo irizpide orokorragoei erantzuten diete, eta beste batzuk, berriz, neurri eta proposamen zehatzagoei eta espezifikagoei. Nolanahi ere, horiek guztiak bat datoz Erronka demografikorako 2030 Euskal Estrategian ezarritako jarduera-esparruarekin, eta guztiak sartu dira azken dokumentu honetan.

Prozesu honen hasieran ezarritako kronogramaren arabera, ekarpenak kontuan hartu eta txertatu ondoren, 2030 Euskal Estrategiak 2022ko ekainean izan beharko luke behin betiko onarpena. Aurreikuspen hori betetz, Gobernu Kontseiluak 2022ko ekainaren 21ean berretsi du estrategia-proposamena. Bi dokumentu bereizitan egituratuta dago: I. Esparru Orokorra eta II. Dokumentu operatiboa.

Lehenengo dokumentuak, alde batetik, Estrategiaren oinarriak jasotzen ditu; eta, bestetik, egindakoaren balantzea eta nazioarteko erreferentziak. Bigarren dokumentuan proiektatutako erabakien oinarri den esparrua deskribatzen du. Bigarren dokumentu honek bi atal ditu: strategiaren abiapuntuak eta jarduera-plana.

Ondorioztatu behar da, abian jarri aurretik, Estrategia horrek bere aurretiko helburueta-ko bat bete duela. Planaren prestaketa parte-hartzailea izan da, sailen, erakundeen eta gizartearen ikuspegitik. Guztioi, guztion onerako, komeni eta interesatzen zaigu gai honetan adostasun handietan oinarrituta jardutea. Sinergia handia behar da erronka horri aurre egiteko. Jokoan dago Euskadiren proiektzioa datozen hamarkadetan.

Lehen zatia
Abiapuntua

1. Azken urteotako esperientziaren ikaskuntzak

1.1. Nazioarteko lehentasuna

Nazioarteko erakundeek gomendatzen dute lehentasun handiena ematea demografiaren gainbeherari eta biztanleriaren zahartzeari. Balantze onenak eskaintzen dituzten herrialdeak bereizten dira gazteen bizimodu independenteko proiektuak sustatzeko baliabide gehiago erabiltzeagatik eta familiei zuzeneko laguntza ekonomiko handiagoak eta luzeagoak emateagatik seme-alaba bakoitzeko.

1.2. Tokiko orientazioa

Euskadin garatutako jarduerak diagnostiko egokietan oinarritzen dira, eta erronka horri erantzun integrala emateko esparru guztiak hartzen dituzte barnean, batez ere gazteen emantzipazioa eta familia berrien eraketa, baina baita gizartearen zahartzeari, etorkinen gizarteratzeari eta gizarte-politika aurreratuen bidezko desberdintasunei erantzuteko beste batzuk ere.

1.3. Joera ezkorra

Hala ere, biztanleriaren zahartze-joerak jarraitzen du, eta ez da aurrerapenik ikusten emantzipatzeko batez besteko adinean. Jaiotza-tasen eta ugalkortasun-tasen beheranzko joerak ere ez du atzera egiten. Datuek balantze demografiko txarrena duten Europar Batasuneko herrialdeen artean kokatzen gaituzte.

1.4. Pandemia eta Ukrainako inbasioa

COVID eragina demografian ere faktore garrantzitsua da Europa osoan. Euskadin, EUSTATen arabera, jaiotzen kopurua % 5,9 jaitsi zen 2020ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi beraren aldean. Ukrainaren inbasioak eragindako ziurgabetasun sozioekonomikoaren inpaktuak indartu egiten ditu berreskurapen demografikoaren ikuspegirako oztopoak. Errealitate horrek erronkaren konplexutasuna azpimarratzen du eta zuhurtzia eskatzen du helburuak ezartzerakoan.

1.5. Defizita

Aurreko guztia gorabehera, eta zalantzarik gabe garrantzi estrategikoa duen arren, 2022ko lehen seihilekora arte, demografiaren gaiak ez du lehen lerroko lehentasuna lortu agenda publikoan, parlamentarioan edo komunikabideetan, ezta gizarte-kezken artean ere. Ezta Estatuan edo Europan ere. Euskadin, estrategia hau aurkeztu izanari eta Eusko Legebiltzarrean egindako eztabaida monografikoari esker, neurri batean, gai horren lehentasuna birkokatu ahal izan da.

1.6. Beharra

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da erakundearteko eta gizarteko euskal estrategia bat izatea, bi gako osagarri kontuan hartzen dituena: lehena, eraldaketa demografikoak aldaketa sistemiko eta kultural bat dakar, epe ertain eta luzera proiektatu behar dena; eta, bigarrena, lehentasunezkoa da egungo joera demografikoa aldatzen lagunduko duten epe laburreko inpaktu-jarduerak identifikatzea.

1.7. Eragile anitzeko lankidetzak: Auzolana

Eusko Legebiltzarrak 2022ko maiatzaren 18ko eztabaida monografikoan azpimarratu zuenez, "erakundeetako eta gizarteko eragile guztiei dagokie demografiaren gaia agenda politiko-instituzionalaren erdigunean kokatzea eta gizartearekin partekatzea haren irismen strategikoa". Hori herri-estrategia bat da. Metatutako esperientziak erakusten

duenez, bere helburuak ondo lortzeko ezinbestekoa da arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren eta hirugarren sektore sozialaren parte-hartzea sustatzea erronka demografikoari aurre egiteko politiketan, bai eta gizarte-eskubideen onarpena indartzeko eta eskubide horiek benetan erabiltzen direla bermatzeko, biztanleria kalteberenaren beharrak ezagutzeko eta gizarte aurreratu baten berezko kohesio- eta gizarteratze-helburuak lortzea ahalbidetuko duten estaldurak ezartzeko ere. Talde-mentalitatea behar da, Auzolana.

2. Prospekzio soziologikoko azterlanen ondorio nagusiak

2022ko maiatzaren 16an, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak Euskadiko biztanleek erronka demografikoaren aurrean dituzten pertzepzioetan eta jarreretan oinarritutako azterlan bat argitaratu zuen. Landa-lana 2022ko martxoaren 28tik apirilaren 1era bitartean egin zen, eta, guztira, 1.202 inkesta egin ziren telefonoz. Azterlan horrek eta datu-multzo horrek aurreko azterlanetan eta inkestetan hautemandako joerak berretsi eta eguneratu zituzten. Gai demografikoaren garrantzi estrategikoa eta hurrengo hamarkadetako ikuspegiaren duen lehentasuna ere berresten dute. Hona hemen ondorio nagusiak:

2.1. Nahi baino seme-alaba gutxiago

Idealarekin izandako benetako seme-alaba kopurua zenbateraino egokitzen den galdetuta, % 52k esan du nahi lukeena edo gustatuko litzaiokeena baino seme-alaba gutxiago izan dituela. 18 eta 29 urte bitarteko artean, berriz, % 81era iristen da ehuneko hori, baina horietatik gutxienez % 54k espero du etorkizunean izatea.

Biztanleen % 10ek dio, "0 seme-alaba izatea gustatuko litzaiokeela edo gustatu izango litzaiokeela"; ehuneko hori % 5ekoa zen duela sei urte. 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 15ek adierazi du hori. Azken batean, amatasunari eta aitatasunari uko egiteko jarrerak gora egin du. Hala ere, inkestari erantzun dioten pertsonen batez bestekoaren arabera, seme-alaben kopuru ideala 2,2 da. Euskadiko jaiotza-tasari dagokionez, 1,28 seme-alaba emakume bakoitzeko.

2.2. Lehenengo amatasuna edo aitatasuna, nahi baino 4 urte geroago

Lehen seme-alaba izateko adinari dagokionez, lortutako erantzun guztien batez bestekoa 28 urtekoa da. Hala ere, Euskadiko emakumeek lehen seme-alaba izateko batez besteko adina 32,6 da Euskadin.

2.3. Gazteen emantzipazioa, nahi baino 5 urte beranduago

Nahi baino beranduago seme-alabak izateko arrazoietakoa bat da gazteak beranduago emantzipatzen direla. Euskaldunen ustez, emantzipatzeko batez besteko adin egokiena 25 urte da. Hala ere, euskal gazteen batez besteko emantzipazio-adina 30,2 urtekoa da.

2.4. Demografikoa, lehentasunezko erronka

Herritarrei planteatutako etorkizuneko erronken artean, arazo demografikoak garrantzitsuenetakotzat hartzen dira, 10etik 7ko aldearekin "larritasun-eskalan". "Desberdintasun sozialen eta pobreziaren" atzetik soilik kokatzen da (7,1).

2.5. Enplegua, laguntzak eta immigrazioa, konponbiderako bide nagusiak

Herritarrek planteatzen dituzten irtenbideek bi orientazio nagusi dituzte. Lehenik, enplegua (enplegua sortzea, % 23, eta kalitatezko enplegua, % 14); eta, bigarrenik, familiak eraikitzen laguntzea (laguntza ekonomikoak, % 17, eta jaiotza-tasa sustatzea, % 12).

Biztanleriaren bi herenek (% 65) uste dute biztanleria etorkinaren etorrera ere izan daitekeela biztanleriaren zahartzearen arazoaren irtenbidearen zati. Herritarren antzeko proportzio batek (% 64) uste du etorkizunean eskulan-faltari aurre egiteko neurririk eraginkorrena seme-alaba gehiago izatea dela.

3. Irizpide gidariak

3.1. Eraldaketa sistemikoa eta progresiboa

Estrategia horrek eraldaketa sistemiko eta progresibo bat proiektatzen du, 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datorrena. Ikuspegi integral horrek berekin dakar etxebizitza-, enplegu-, hezkuntza-, gizarte- eta osasun-politikak, migrazio- eta gizarte-prestazioen politikak eta gaitasunak garatzeko laguntzak, bai eta hiri- eta landa-dimentsio bikoitza ere, epe labur eta ertaineko ekimenekin eta lau sektore hauen lankidetzarekin: publikoa, enpresa, hirugarren sektorea eta familia, sare komunitarioekin batera.

3.2. Genero-ikuspegia

Estrategia eta jarduera guztien berri genero-ikuspegiak eta ikuspegi interseksionalak ematen dute. Helburua da pertsonak, hala aukeratzen badute, amatasuna/aitatasuna beren bizi-proiektuko beste alderdi batzuekin batera egin ahal izateko eta nahi duten seme-alaba kopurua nahi dutenean eduki ahal izateko baldintzak sortzea.

3.3. Aniztasunaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik eza

Estrategia familia-egituren, familia-bizitzako ibilbideen eta familia barruko harremanen aldaketa-prozesu sakona aitortzetik abiatzen da, eta familia-adierazpenen aniztasun horrek gizarte-babes maila bera izatea bilatzen du. Azken batean, familia-aniztasuna, tratu-berdintasuna eta pertsonen eta familien diskriminaziorik eza aitortu eta babestu nahi dira.

3.4. Erantzukidetasuna

Estrategia honetan jasotako jarduerak gizarte-antolaketa erantzukide baterantz aurrera egiteko beharra biltzen dute, eredu bat garatuz non bi gurasoek neurri berean parte hartzen duten produkzio- edo lan-zereginetan, eta ugalketa- edo zaintza-lanetan, jasozaile bikoitzaren eta zaintzaile bikoitzaren eredutik abiatuta.

3.5. Iraunkortasuna

Estrategia horrek barne hartzen dituen hedapenak, helburuek eta jarduerak kontuan hartzen dute belaunaldien ordezkapena zuzenean lotuta dagoela gizarte baten berrikuntzarekin eta haren iraunkortasunarekin. Desoreka demografikoak eragin zuzena du belaunaldien arteko elkartasun-politikei eta gizarte-zerbitzu eta -politikei eustean. Era berean, lan-merkatuan laneskua birjartzean gero eta defizit handiagoa eragiten du. Oreka demografikoa bilatzea oso lotuta dago iraunkortasunaren irizpide gidariarekin, eta trantsizio sozialaren ardatz nagusietako bat da.

3.6. Adinekoen eskubideen bermea

Estrategia horren lehentasunezko erreferentzia da adineko pertsonen autonomia, bizitza osoa eta parte-hartze soziala sustatzea bizi-ziklo osoan, bizi-itxaropen osasungarria handitzen lagunduz eta politikak, zerbitzuak eta programak adinekoen belaunaldi desberdinen itxaropen, gaitasun edo interesetara egokituz.

3.7. Gazteen emantzipazio-prozesuaren zentraltasuna

Gazteek beren bizi-proiektua errealitate bihurtzeko dituzten zailtasunak defizit-adierazle oso garrantzitsua dira. Emantzipaziorako baldintza egokiak sustatzea da estrategia honen ardatz nagusia erronka demografikoari lotutako gazte-politiketan, aukera faltak eragindako atzerapenik gabe.

4. Esparru operatiboa

Erronka demografikorako 2030erako Euskal Estrategia esparru estrategiko batean kokatzen da, eta esparru horren osagai nagusiak honako hauek dira: ikuspegia, misioa, helburuak, etapen programa, irizpide metodologikoa, jarduera-planaren egitura eta aurrekontu-zenbatespena.

4.1. Ikuspegia

Estrategia honetan identifikatutako jarduera-proposamenak eta horien aplikazioa baliagarriak izan daitezten lortzea, errealitate demografikoan eta eraldaketa sistemiko baten esparruan joera-aldaketa erabilgarria, bidezkoa, inklusiboa, iraunkorra eta jasangarria egin ahal izateko.

4.2. Misioa

Erronka demografikoaren izaera sistemikoaren arabera, estrategia honen misioa *sinergia* hitzari lotuta dago (*Auzolana*). Gutxienez, lau alderdi ditu:

- Sinergia instituzionala. Sailen arteko eta erakundeen arteko lankidetzak eta koordinazioa.
- Sinergia soziala. Kultura-aldaketaren eta lankidetzak publiko-pribatuaren eta publiko-sozialaren prozesua.
- Sinergia sektoriala. Askotariko gai- eta kudeaketa-eremuetako jardueren batura.
- Aldi baterako sinergia. Eragin metakorra, progresiboa eta jasangarria hamarkada-aldien arabera.

4.3. Helburuak

•Helburu orokorrak

- Jarduera-programa iraunkor bat garatzea, 2030erako ebaluazio- eta progresibotasun-ikuspegiarekin.
- Demografiaren gaia agenda politiko-instituzionalaren erdigunean jartzea eta gizartearekin partekatzea haren irismen estrategikoa.

•Helburu estrategikoak

- Emantzipazioa.** Gazteen emantzipazioari laguntzeko politikak gure ingurunean emaitzarik onenak eskaintzen dituzten herrialdeen mailan kokatzea.
 - 2025erako helburua: emantzipatzeko batez besteko adina 30,2 urtetik 29 urtera jaitea.
 - 2030erako helburua: emantzipatzeko batez besteko adina 28 urtetik beherakoa izatea.
- Jaiotza.** Familia-proiektuak eraikitzeke laguntzak eta jaiotza-tasarako laguntzak gure ingurunean emaitzarik onenak eskaintzen dituzten herrialdeen mailan kokatzea.
 - 2025erako helburua: jaiotza-tasaren beheranzko joera aldatzea.
 - 2030erako helburua: jaiotza-tasa %15 handitzea.

•Lehentasunezko helburuak

- Errefortzua.** Politika publikoen emaitzak eta eragina kuantitatiboki eta kualitatiboki hobetzea lehentasunezko eremu hauetan, demografia-erronkari modu sistemikoan heltzeko:
 - Landa-ingurunekeo despopulazioari eta zahartzeari erantzutea.
 - Migrazioa erakartzea eta gizarteratzea.
 - Zahartze osoa eta osasungarria.

4.4. Etapen programa

Prozesu horren diseinuan hiru etapa hartu dira kontuan:

- Prestakuntza**

2021eko urtarriletik 2022ko ekainera: elkarrizketa eta akordioa estrategia eta proposamen partekatuak definitzeko.

- Abian jartzea**

2022ko ekainetik 2025era: Estrategiaren lehen fasea prestatzea, garatzea eta ebaluatzea.

- Finkatzea**

2026 eta 2030 bitartean: Euskal estrategia hedatzea eta sendotzea eta aldizka ebaluatzea.

4.5. Irizpide metodologikoa (*inpaktu bikoitzekoa*)

Erronka demografikorako 2030erako Euskal Estrategiak inpaktu bikoitzeko irizpide metodologikoa hartzen du bere gain jardunak bere helburua epe laburrean edo ibilbide luzean kokatzearen arabera egituratzeko garaian.

- Epe laburrerako eraginaren irizpidea: jarduera berriak bultzatzea**

Errealitate demografikoak epe laburrerako eragina duten ekimenen programa bat eskatzen du, oso helburu zehatz eta apal batekin: datozen urteetan joera negatiboan aldaketa eragitea, bai emantzipazio-adinean, bai jaiotza-tasan. Bestela esanda, gain-behera demografikoko agertoki batetik berreskuratze demografikoko agertoki batera igarotzea. Logikoaenez, epe laburrean eragina izango duten jarduera horiek berriak eta gehigarriak izango dira. Gainera, iraunkorrak eta jasangarriak izan beharko dute ibilbide luzean ere.

- Ibilbide luzeko inpaktuaren irizpidea: abian dauden jarduerak indartzea**

Erronka demografikoari erantzuteak belaunaldi-erreiboko ziklo baten kudeaketaz hitz egitea esan nahi du. Eraldaketa horrek aldaketa sistemikoa eta kulturala dakar, eta epe ertain eta luzean proiektatu behar da. Begirada luzea eta zabala behar du. Gutxienez 30 urteko horizontean ari gara. Epe laburreko eragin-jarduerak indartu eta osatu egin behar dira, ibilbide luzeko eragin iraunkor eta jarraitua duten ekimenen programa baten bidez. Batez ere, dagoeneko martxan dauden eta mantentzen, indartzen edo handitu egiten diren jarduerekin bat etorriko dira.

4.6. Jarduera-planaren egitura

Proposamen honek hiru atal handitan egituratzen du bere jarduera-plana. Lehenengo biek epe laburreko inpaktuaren eta ibilbide luzeko inpaktuaren ikuspegi bikoitza islatzen dute. Hirugarrenak zeharkako jarduera-ardatzak planteatzen ditu. Eranskinean aginte-taula integrala eta bere adierazle-sistema deskribatzen ditu.

- Lehen atala. Epe laburreko eragina: jarduera berriak bultzatzea.** Lehentasuneko lau jardueratan zehazten dira:

- Ardurapeko seme-alabengatikozuzeneko laguntzak handitzea.
- Gazteenekintzailatza-, prestakuntza- edo etxebizitza-proiektuetarako mailegu-programa.
- 0-2 urteko etaparen doakotasuna Haurreskolak Partzuergoaren bitartez.
- Ikuspegi demografikoaren arau-zeharkakotasuna.

- Bigarren atala. Ibilbide luzeko inpaktua: abian dauden jarduerak indartzea.** Jarduera estrategikoko lau ardatzetan antolatzen dira:

- Gazteen emantzipazioa.
- Familien proiektuak eraikitzea.
- Adinekoen bizitza autonomoa eta erabatekoa bultzatzea.
- Migranteen gizarteratzea.

•**Hirugarren atala. Zeharkako ardatzak.** Osagarri gisa, jarduera-planak zeharkako euskarriko hiru ardatz gehitzen ditu:

- Landa-balioa handitzea.
- Prospekzioa, dibulgazioa eta komunikazioa.
- Aurrekontua, jarraipena eta ebaluazioa.

•**Eranskina.** Erronka demografikorako 2030erako Euskal Estrategiaren **Aginte Taula Integrala.**

4.7. Aurrekontu-zenbatespena

Estrategia honetan sartutako jarduera bakoitzak koadro operatibo bat du, eta koadro horrek honako hauek identifikatzen ditu: “Arlo Arduraduna”, “Abiarazteko Egutegia” eta “Aurrekontu-zenbatespena”. Prozeduraren ikuspegitik, estrategia hori onartzeak ez du oraindik lotzen azken eduki ekonomikoaren definizioa. Jarduera bakoitzaren ardura duen sail bakoitzari dagokio, prozedura egokien bidez, jarduera horren aurrekontu-izla garatzea, zehaztea eta jasotzea.

Hala ere, “1. ataleko jarduerak. Jarduera berriak bultzatzea, epe laburreko inpaktuaren irizpideari jarraituz” hasierako aurrekontu-zenbatespen bat jasotzen dute, garatu nahi den ekimenaren dimentsioa adierazteko eta deskribatzeko.

Bigarren eta hirugarren blokeetan, jarduketa asko eta asko abian dauden eta indartzen diren jarduketei dagozkien, eta jarduera horien izla dagokion arloaren edo sailaren aurrekontu arruntean xurgatzen da; beste jarduera batzuek, beren izaeragatik, ez dute eragin gehigarririk aurrekontuan; eta, azkenik, beste kasu batzuetan, lehen fasean aurreikusitako txosten-, diseinu- edo zehaztapen-tresnak burutzeak baldintzatzen du jarduera horien aurrekontu-izla.

Ondorioz, jarduketa bakoitzaren eduki ekonomikoak, hala badagokio eta abian jarri aurretik, dagokion aurrekontu-izendapena eta tresna juridiko egokia beharko ditu.

Bigarren zatia
Jarduera-plana

LEHEN ATALA

Jarduera berriak bultzatzea, epe laburrerako inpaktu-irizpidearekin

•Orientazio estrategikoen esparrua

-Laguntza-sistema iraunkorra eta jasangarria bultzatzea, emantzipaziorako zein familiek nahi dituzten seme-alabak nahi dutenean izan ditzaten aldeko baldintzak sortuko dituen.

-Familiak eraikitzeke ekosistema egokia sustatzea eta, zehazki, familiek hazkuntzarako jasotzen dituzten pizgarriak areagotzea, ardurapeko seme-alabengatikozuzeneko laguntzak handituz, ebaluazio- eta progresio-ikuspegiarekin.

-Gaur egun dauden maileguen ebaluazioa oinarri hartuta, gazteentzako mailegu-programak ezartzea, diruz lagunduak edo interesik gabeak, epe luzera itzultzeko aukera ematen dutenak, ekintzaitzako, prestakuntzako eta ohiko etxebizitza erosteko proiektuetarako.

-0-3 haur-hezkuntzan plaza publikoen eskaintza eta eskaria egokitzea eta 2023 urtearen amaieran 0-2 urteko etapan doakotasuna lortzea, Haurreskolak Partzuergoa indartuz, zerbitzu publikoa, unibertsala, kalitatezkoa eta doakoa den aldetik, eta haur kalteberenek plazak bete ditzaten sustatzea, informazio-kanpainen bidez, ordutegiak eta eredia malgutuz, unibertsaltasunean eta aukera-berdintasunean aurrera egiteko eta kontziliazioa indartzeko baldintzak sortzeko.

-Ikuspegi demografikoa sustatzea, politika publiko guztien garapenean kontuan hartu beharreko zeharkako dimentsio gisa.

•Helburuak

-Datozen urteetan joera negatiboan aldaketa eragitea, bai emantzipatzeko adinean, bai jaiotza-tasetan, epe ertainean beharakada demografikoko agertokitik errekupeazio demografikoko agertokira igarotzea errazteko. Horren ondorioz, lehenik eta behin joera-aldaketa lortu behar da, epe laburrean. Bigarrena, helburu hori lortzera bideratutako jarduerak ibilbide luzean ere iraunkorrak eta jasangarriak izango direla ziurtatzea da.

•1. jarduera. Ardurapeko seme-alabengatikozuzeneko laguntzak handitzea

Hilean 200 euroko zuzeneko laguntza ematea ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko, hiru urte bete arte. Laguntza hori bateragarria izango da 4 eta 7 urte bitarteko familia ugarietzako egungo prestazioekin, egungo zerga-kenkariarekin eta DSBEko seme-alabengatikozuzeneko laguntzekin. Neurri hori UNICEFek sustatutako "Lehenengo 1.000 eguneko programekin" bat dator. Programa horien irizpidearen arabera, administrazio publikoek lehen 1.000 egun horietan egin behar dituzte inbertsioak, haurren bizitzako lehen hiru urteen garrantziagatik.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Gizarte Politiketako Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2023an. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·125 milioi euro. |

·2. jarduera. Gazteen ekintzailtza-, prestakuntza- edo etxebizitza-proiektuetarako mailegu-programa

Mailegu subsidiatuen edo interesik gabekoen programa bat sortzea, epe luzera itzultzeko aukerarekin, ekintzailtzako, prestakuntzako edo gazteentzako etxebizitzako proiektuetarako. Programa bera ezarri aurretik, azterlan bat egingo da ekintzailtzari, prestakuntzari eta etxebizitzaren erosketari laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoan dauden ildo publikoak ebaluatzeko, programa berriarekin duen lotura eta osagarritasuna aztertzeko: adina, maileguaren kuantifikazioa, finantza-baldintzak, administrazio-prozesua eta erregulazio-irizpideak, besteak beste. Lehenengo lau urteetan, programa proiektu pilotu gisa mantenduko da, haren eragina ebaluatu ahal izateko eta ezaugarriak gazteen beharretara egokitzeko. Eskatzailearen kalteberatasun sozialeko edo landatartasuneko salbuespenezko baldintzak kontuan hartuta, maileguaren ehuneko bat itzuli beharrik gabeko diru-laguntza izan liteke.

| | |
|--|-------------------------|
| Arlo arduraduna | ·Gazteria Zuzendaritza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2023an zehar. |
| Aurrekontu-zenbatespena (Aurretiaz aztertu ondoren zehaztu gabe) | ·20 milioi euro. |

·3. jarduera. 0-2 urte bitarteko etaparen doakotasuna, Haurreskolak Partzuergoaren bidez

Haur-eskolen doakotasuna bermatzea 0-2 urteko etapan, Haurreskolak Partzuergo indartuz. Ekimen horren helburua da kontziliazioa, hezkuntzaren unibertsaltasuna eta aukera-berdintasuna sustatzeko neurrien multzoa sendotzea.

| | |
|--|-------------------|
| Arlo arduraduna | ·Hezkuntza Saila. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2023an zehar. |
| Aurrekontu-zenbatespena (Ikasturte oso baterako) | ·7 milioi euro. |

·4. jarduera. Ikuspegi demografikoaren arau-zeharkakotasuna.

Xedapen orokorrak egiteko prozedura ezartzen duen araudia aldatzea, legeak, arauak, estrategiak, sektoreko jarduera-planak edo inbertsio-programak egitean ikuspegi demografikoa kontuan har dadin, hala badagokio familiaren ikuspegia barne. (8/2003 Legea, abenduaren 22koa. Xedapen orokorrak egiteko prozedura)

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia. ·Gobernantza Publikoa eta Autogobernu Saila. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2022an zehar. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Aurrekontuan eraginik ez dauka. |

BIGARREN ATALA

Abian dauden jarduerak indartzea ibilbide luzeko inpaktuaren irizpidearekin

•I. ardatza, jarduera estrategikoa: **Gazteen emantzipazioa**

1. Esparrua

•Jarduera-ardatzaren deskribapen sintetikoa

-Belaunaldien arteko arrakala murriztea, belaunaldien arteko desberdintasuna konpentsatzea likideziaren eta bitartekoen eskuragarritasunean, gazteen bizi-proiektuei laguntzea eta, Gazteen Emantzipaziorako Euskal Estrategiaren arabera, emantzipazio-adina aurreratzea, eta, horretarako, gazteen bizi-proiektuak eraikitzeko ekintzailtza eta autonomia erraztuko duten enplegu-, etxebizitza-, prestakuntza- eta laguntza-politiketan eragitea.

•Lan-hipotesiak

-Emantzipazioaren arloko erronka demografikoari erantzuteko, lehenengo etapan, 26 eta 31 urte bitarteko gazteek:

-Likidezia handiagoa izatea emantzipazioa gauzatu ahal izateko.

-Enplegua eta etxebizitza eskuratzea, bereziki alokairu-erregimenean, beren diru-sarreretara egokitutako kostu batean.

-Emantzipazio-ibilbideak garatzeko informazio eta orientazio pertsonalizaturako eta espezializaturako sarbidea izatea.

•2030erako helburuak

-Euskadiko gazteen emantzipazio-adina 28 urtetik beherakoa izatea.

•Legegintzaldiko helburuak

-Emantzipazio-adina atzeratzeko joera indargabetzea, beste arrazoi batzuen artean eta oraindik zehazteke dagoen intentsitatearekin, COVID-19aren krisiaren inpaktua indartzen ari dena, eta emantzipatzeko batez besteko adina murriztea, 30,2 urtetik 29 urtera pasatuta.

-Estrategia aktibo eta ezagun bat hedatzea politika eta neurri espezifiko argiekin, gazteei emantzipatzen eta enplegua eta etxebizitza lortzen laguntzeko.

•Orientazio estrategikoak

-Gazteen emantzipazio-prozesuaren ikuspegia funtsezkoa da Erronka Demografikorako 2030 Estrategian, eta gazteek bizi-proiektuak autonomiaz eta aukerarik ezak eragindako atzerapenik gabe eraiki ahal izateko baldintza egokiak sustatzean oinarritzen da.

-Zehazki, estrategia horrek lehentasuna ematen die Gazteen Euskal Legeak gazteen emantzipazioari buruz ezartzen dituen aurreikuspenei, bai eta eremu horretan bertan ekimen berritzaileak abian jartzeari ere. Horren guztiaren helburua da 2030erako emantzipatzeko batez besteko adina 28 urtetik beherakoa izatea.

2. Emantzipazio-ibilbideei laguntza pertsonalizatua emateko irizpideak eta jarduerak

•Irizpideak

-Gazteei laguntza pertsonalizatua bermatzea emantzipazio-ibilbideetan eta bizi-proiektuetan, gazteen mugikortasuna eta migrazio-prozesuak barne (20 eta 40 urte bitarteko pertsona, bikote eta familia gazteak erakartzea, itzultzea eta konektatzea).

-Gazteek parte hartzeko espazioak sustatzea (panelak, tailerrak) askotariko bizi-proiektuei eta emantzipazio-ibilbideei laguntzeko diseinuan (baterako diseinua) eta informazio- eta orientazio-prestazioetan.

-Emantzipazioaren inguruko hedapen- eta sentsibilizazio-ekintzak bultzatzea, kultura eta emantzipazio-ibilbideak edo -prozesuak eta -praktikak azpimarratuz.

•Jarduerak

•5. jarduera. GAZ diseinatzea eta abian jartzea

Gazteen Emantzipaziorako Euskal Sarearen esparruan, GAZ (Gazteen ibilbideak Abian jartzeko Zerbitzua) diseinatzea eta abian jartzea –Ameslariak programa hartzen duena–, Gazteei buruzko martxoaren 10eko 2/2022 Legearen 23. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, informazioa, orientazioa, bitartekaritza, aholkularitza eta laguntza integrala, jarraitua eta pertsonalizatua emateko zerbitzuari dagokionez, gazteen emantzipaziorako eta mugikortasunerako, itzulera barne. Bi programa horiek Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin artikulatuko dira; bereziki gazteen emantzipazioa eta mugikortasuna sustatzera bideratutako foru- eta toki-ekimenekin, bai eta talentua erakartzera, atxikitzaera, itzultzaera eta konektatzaera bideratutakoekin ere; eta gazte-informazioko sarearekin eta baliabideekin.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | <i>•Gazteria Zuzendaritza.</i> |
| Abian jartzeko egutegia | <i>•2022ko azken hiruhilekoa.</i> |
| Aurrekontu-zenbatespena | <i>•Programen diseinua amaitzean sartuko da.</i> |

3. Etxebizitzaren arloko irizpideak eta jarduerak

•Irizpideak

-Etxebizitzarako eskubide subjektiboa erregelamendu bidez garatzea, EPOTik etxebizitzarako prestazio ekonomikorako trantsizio ordenatua bermatuz, eta Etxebizitzaren aldeko Itun Sozial bat, 2021-2023 Etxebizitza Bideratzeko Plana eta gazteentzako etxebizitza-programa berezi bat bultzatzea, horietan guztietan gazteen emantzipazioa helburu gisa sartuz eta neurri espezifikoak aurreikusiz.

-Familia mota desberdinak artatzea, familia ugariei arreta berezia eskainiz, familia-unitatea osatzen duten kideen kopurua kontuan hartuz eta etxebizitzaren tamaina aldatzeko premiei erantzunez.

-Etxebizitza hutsen gizarte-arazoa etxebizitza-politikaren zutabe nagusitzat hartzea, eta arazo hori gainditzeko hainbat aukera proposatzea, bai Etxebizitza Hutsei buruzko 149/2021 Dekretuaren garapenari dagokionez, bai zerga-neurriei dagokienez.

-Gazteentzako enplegua sortzea, hutsik dauden etxebizitzak birgaitzeko programak eta horri lotutako lanbideetan lanbide-heziketa duala bultzatuz.

•Jarduerak

•6. jarduera. Gaztelagun programa zabaltzea

36 urtetik beherakoak alokairuan hartzeko Gaztelagun programa garatzen jarraitzea, eta etxebizitza-gastu publikoa handitzen jarraitzea gazteentzat, bai eta programa horretaz baliatzen diren 26 eta 31 (34) urte bitarteko pertsonen ehuneko ere.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | · <i>Etxebizitza Sailburuordetza.</i> |
| Abian jartzeko egutegia | · <i>Jarduera hau aktibatuta dago.</i> |
| Aurrekontu-zenbatespena | · <i>Aurrekontuan sartuta dago.</i> |

•7. jarduera. Pilotaje berritzaileak abian jartzea

Etxebizitza-proiektu pilotuak abian jartzea, bizikidetzarako gune komunitarioak sortzeko, zainketa-lanen eta bizitzari eusteko lanen erantzukidetasun sozial eta kolektiboa erdigunean jar dezaten; baita alokairu sozialeko politika eraginkor bat ere, etxebizitza eskuratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonentzat, eta bizikidetzaproiektu komun bat eta nahi ez den bakardadea prebenitzeko proiektu bat duten komunitateak sustatzeko.

| | |
|-------------------------|---|
| Arlo arduraduna | · <i>Etxebizitza Sailburuordetza.</i> |
| Abian jartzeko egutegia | · <i>2023an zehar.</i> |
| Aurrekontu-zenbatespena | · <i>Pilotajeak zehaztean sartuko da.</i> |

4. Enpleguaren arloko irizpideak eta jarduerak

•Irizpideak

-Enplegu-politika aktiboak ebaluatzea, gazteen emantzipazioaren ikuspegitik, eta ikuspegi hori sartzea euskal enpleguari buruzko legean, emantzipaziorako neurri espezifikoak txertatuz, gazteei enplegua lortzen laguntzera bideratutako beste neurri orokor batzuekin batera (gazteen bermea).

-Gazteen laneratzea hobetzea, talka-plan baten bidez eta kalitatezko enplegu egonkorra sustatzeko politiken bidez, ezinbestekoak baitira bizitza- eta familia-proiektuak sortzeko. Toki- eta foru-administrazioekin horiek abian jartzea koordinatzea, enplegu publiko bermatuarekin eta lan-baldintza duinak eta lan-eskubideen errespetua bermatzeko politiketan inbertsio handiagoa egitearekin.

-Sektore ekonomikoek eta kolektibo profesional feminizatuenek izango duten eraldaketa sakona kontuan hartuta, langileen errelebo-plan ordenatu eta eraginkorra egitea, honako hauek izango dituen:

—neurri bereziak, feminizatutako sektore eta kolektibo profesional horiek duintzeko eta haien lan-eremua kalitatezko enplegurako gune bihurtzeko. Besteak beste, zainketen eremuan emakume migratzaileak nagusi diren lan-baldintzak duintzeko neurriak berariaz jasotzea.

—belaunaldien arteko erreleboa bultzatzeko neurriak, kalitatezko enplegua sustatzeko pizgarrien bidez, enpresetan, erakundeetan eta instituzioetan ordezkapena belaunaldiz belaunaldi kudeatzeko planen esparruan.

•Jarduerak

•8. jarduera. Gazteen enplegurako talka-plana bultzatzea

Gazteen enplegurako talka-plan bat bultzatzea, enpleguaren eta suspertze ekonomikoaren esparru-programan integratua, honako jarduera-ardatz hauekin: gazteen enplegurako prestakuntza duala; hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa; prestakuntza-bekak eta lan-esperientziakoak, kontratatzeko konpromisoarekin; gazteen laguntza pertsonalizatua eta tutoretza indartzea, enplegu-

rako eta garapen profesionalerako ibilbidean; ekintzailtzaren garapena, autoenplegua eta gazteen startupa; eskualdeen garapeneko eta gazte-prestakuntzako berariazko programak.

| | |
|-------------------------|---|
| Arlo arduraduna | ·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2023an zehar. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Edukia diseinatu eta garatzean sartuko da. |

·9. jarduera. Txanda-plana diseinatzea

Plan ordenatu eta eraginkor bat prestatzea, datozen urteetan EAEn langileak txandakatzeko, kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzeko eta langabezia- eta prekaritate-tasa handienak dituzten kolektiboek –gazteek, emakumeek eta iraupen luzeko langabeek, batez ere– kalitatezko enplegu batera igartzeko bidea egin dezaten.

| | |
|-------------------------|---|
| Arlo arduraduna | ·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2023an zehar. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Edukia diseinatu eta garatzean sartuko da. |

·10. jarduera. Lan Ikuskaritzako kanpainen jarraipena

Kontratazioko iruzurraren arloko Lan Ikuskaritzako kanpaini eustea, eta 2022ko martxoaren 15eko Gizarte Elkarrizketako Mahaian onartu ziren gizarte-eragileen partaide-tzarako neurriak babestea, Lan Ikuskaritzaren Aholku Batzordea sortuz, aurrekarizatutako eta feminizatutako sektoreei eta, bereziki, etxeko langileei begira.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·Jarduera hau aktibatuta dago. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Aurrekontuan sartuta dago. |

5. Prestakuntzaren eta laneratzearen arloko irizpideak eta jarduerak

·Irizpideak

- Lanbide-heziketa eta unibertsitate-mailako prestakuntza duala sustatzea.
- Gazteak gizarteratzeko programa espezifikoak bultzatzea, orientazioaren, prestakuntzaren eta ekintzailtzaren garapenaren bidez.
- Gazteen laguntza pertsonalizatua eta tutoretza indartzea, enplegurako eta garapen profesionalerako bidean.
- Biztanleria osoa enplegurako prestakuntzara iristeko mekanismo arinak egituratzea.
- Bizi-proiektuak garatzea ahalbidetuko duen kalitatezko enplegua sustatzea.
- Talentua atxikitzeke eta erakartzeko programak abian jartzea, ikerketari eta berrikuntzari laguntzeko politika publikoen bidez.
- Belaunaldien arteko lankidetzeta-programak garatzea, adinekoen eta gazteen artean eza-gutza transferitzea sustatzeko, eta enplegu-politika publikoak garatzea luzaroko langabeak laneratzeko, bai eta zainketen arretarako jarduerarik gabeko aldi luze baten ondoren

lan-merkatuan sartzea erabakitzen dutenak ere, orientazio-, prestakuntza- eta laguntza-ekintzen bidez, pertsona horiek birkualifikatzea eta lan-jardueran sartzea lortzeko.

•Jarduerak

•11. jarduera. Prestakuntza eta, bereziki, Lanbide Heziketa eta Unibertsitate Heziketa Duala bultzatzea, bereziki, industria-sektorean emakumeek duten parte-hartzeari erreparatuta

Lanbide Heziketa eta Unibertsitate Heziketa Duala bultzatzea Lanbide- eta Unibertsitate-Heziketako sektore guztietan, enplegarritasuna indartzeko, bereziki emakumeek industria-sektorean duten parte-hartzea, eta, era berean, gizarte-kohesioa eta gizarteratzea indartzeko.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Lanbide Heziketako Sailburuordetza. ·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2023ko lehen seihilekoa. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Aurrekontuan sartuta dago. |

•12. jarduera. Lan-merkatuko beharren diagnostikoa eguneratzea

Gizarte-eragileekin eta hezkuntza-komunitatearekin (unibertsitateak, LHko zentroak eta profesionaltasun-ziurtagiriak eskaintzen dituzten zentroak) lankidetzan, premien azterketa bat egitea, gure lan-merkatuaren eskaerak eta lanbide-profilei dagokienez dauden gabezia nabarmenenak eguneratu eta identifikatzeko. Hori oinarri hartuta, eskaera horiekin bat datozen langileak erakartzeko kanpainak egitea.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Lanbide Heziketako Sailburuordetza. ·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza. ·Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2023ko lehen seihilekoa. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Azterlana diseinatzean sartuko da. |

6. Garraio publikoko irizpideak eta jarduerak

•Irizpideak

-Gazteei erraztasunak ematea garraio publikoa erabiltzeko eta mugitzeko, emantzipazio-prozesuak errazten lagundu behar duten estalduren ekosistemaren beste neurri bat den aldetik.

•Jarduerak

•13. jarduera. Tarifak egokitzea

Gazteentzako garraio publikoaren prezioak berrikustea eta erabilera-tarifak aldatzea, Gazteria Legearen arabera gaztetzat jotzen den adin-tarteari dagozkion tarifak lurralde guztietan bateratuz.

| | |
|-------------------------|-------------------------------------|
| Arlo arduraduna | ·Garraio Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2023ko lehen seihilekoa. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Azterlana diseinatzean sartuko da. |

•II. ardatza, jarduera estrategikoa: **Familia-proiektuak eraikitzea**

1. Esparrua

•Jarduera-ardatzaren deskribapen sintetikoa

-Politika zehatzak ezarri eta garatzea, familia bakoitzak nahi adina seme-alaba izan ditzan, haurren pobrezia prebenitzeko eta lehenengo amatasunaren atzerapena baldintza-defizitaren ondorioz ez behartzeko.

•Lan-hipotesiak

-Erronka demografikoari erantzuteko, beharrezkoa da gazteek iraunkortasun-ikuspegia izatea, beren familia-proiektuan aurrera egiteko, hala nahi badute. Ardurapeko seme-alaba bakoitzeko prestazio ekonomiko bat izatea, lau sektoreek kontziliazio erantzukiderako baimenak eta neurriak sustatzea eta gizarte-, osasun- eta hezkuntza-laguntzako sare bat eratzea eta arian-arian garatzea, 0 eta 6 urte bitarteko adinean, familia- edo komunitate-mailako laguntza-sarerik ez duten familia kalteberen kasuan zabal daitekeena, seme-alaben bizitzako lehen urteetan familia-proiektuei laguntzeko estrategia baten oinarriak dira.

•2030erako helburuak

-Helburu nagusia, haur-pobrezia prebenitzeaz gain, familia bakoitzak nahi adina seme-alaba izan ditzan ahalbidetzea da, bai eta lehenengo amatasuna atzeratzea ez behartzea ere, baldintzarik ez dagoelako, eta, horren ondorioz, bizitza-proiektu pertsonaletarako eta familia-proiektuetarako aukerak sortzea, familia-ereduen aniztasunetik abiatuta.

-Jaiotza-tasa % 15 handitzea eta ardurapean seme-alabak dituzten familien pobrezia-tasa % 20 murriztea.

•Legegintzaldiko helburuak

-Estrategia aktiboa eta ezaguna izatea, ardatz eta laguntza argiak dituen, familiak eraikitzen laguntzeko.

-Joera-aldaketa sustatzea, bai jaiotza-tasan, bai lehen amatasunaren atzerapen gero eta handiagoan, Covid inpaktuak eraginda.

•Orientazio estrategikoak

-Bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egiteko politika integral bat bultzatzea, eta gizarte-antolaketa erantzukide baterantz irmoki aurrera egitea, gurasoek produkzio- edo lan-zereginetan, ugalketa-zereginetan edo zaintza-lanetan neurri berean parte hartzen duten eredu bat garatuz.

-Arreta berezia eskaintzea familia ugariei, guraso bakarreko familiei eta mendeko pertsonak ardurapean dituzten familiei.

-Patologia batek eragindako ugalkortasun-arazoak dituzten emakumeei laguntza bidezko ugalketa-tratamendua bermatzea Osakidetzaren bitartez, betiere mediku-kontraindikaziorik ez badago, eta tratamendu horretarako beharrezkoak diren dohaintzak sustatuko dituzten informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak garatzea.

-Euskal Osasun Sistema Publikoaren bidez, haurdunaldia borondatez eteten dela bermatzea, baita emakumeen gorputza eta ugalketa-eskubideak errespetatzeko eta sarbide unibertsala bermatzeko ezinbesteko neurriak direla ere.

-Apurka-apurka handitzea 2030erako berdintasun-politiken aurrekontu-ahalegina, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legearen bosgarren Xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, eta, besteak beste, honako hauek sortzera, indartzera eta bultzatzera bideratzea:

- a) Sail guztietako berdintasunerako administrazio-unitateak.
- b) Indarkeria matxisten biktimen detekzioan, prebentzioan, arreta integralean, erreparazioan eta oroimenean espezializatutako zerbitzuak.
- c) 24 orduko krisi-zentroak koordinatzea, sexu-indarkeriaren biktimei laguntzeko.
- d) Haurren eta nerabeen sexu-esplotazioaren aurkako ekintza-planean aurreikusitako zerbitzuak eta jarduerak.
- e) Berdintasun-planak eta sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloak EAEko administrazio guztietan eta 50 langile baino gehiago dituzten enpresa guztietan.

2. Haurrei eta familiei laguntzeko irizpideak eta jarduerak

•Irizpideak

-0-6 urteko seme-alabak dituzten familiei laguntzeko tokiko ekosistemak arian-arian garatzea, lidergo publikotik eta hiru sistemen eta lau sektoreen lankidetzatik abiatuta, gizarte-, hezkuntza- eta osasun-laguntzak egituratzeko eta hobetzeko, eta 18 urtetik beherako eta pobrezia eta gizarte-bazterkeriako arrisku-egoeran dauden haur eta nerabeen aukera-berdintasuna sustatzen jarraitzea.

-Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Legearen arauzko aurreikuspenak gauzatzeko behar diren bitartekoak eta baliabideak izatea, egoera ahulean dauden adingabeak dituzten familiak hobeto babesteko, bai eta Haurren Bermarako Euskal Estrategia bat ere.

-Haur eta Nerabeen Behatokia indartzea, legez dagozkion funtzioak behar bezala betetzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak ezarri, bai eta EAEko haur eta nerabeen errealitatea eta eremu horretan aplikatzen diren politiken eragina aztertzeko ere.

-Ikasleen irakaskuntza-kalitatean eta banakako arretan sakontzea, eta hezkuntza-sistema errealitate demografiko berrira egokitzeko eta ikastetxeetan gero eta etorkin gehiago egoteko erraztasunak ematea.

•Jarduerak

•14. jarduera. Haurrak bermatzeko programa bat diseinatzea eta abian jartzea

Haurrak bermatzeko estrategia edo programa bat diseinatzea eta abian jartzea, pobrezia eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden 18 urtetik beherako haur eta nerabeen aukera-berdintasuna sustatzeko, hezkuntza-, gizarte-, osasun- eta etxebizitza-zerbitzuetarako sarbide eraginkorra eta doakoa bermatuz, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta indartuz, ardurapean seme-alabak dituzten familien babesa hobetzeko.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Gizarte Politiketako Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2023an zehar. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Programa definitu ondoren sartuko da. |

•15. jarduera. Guraso bakarria izateari buruzko txostena egitea

Gure gizartean dauden guraso bakarreko familiei buruzko txostena egitea, tratu-berdintasunaren printzipioari jarraiki eta irizpide bateratuen bidez, guraso bakarreko familiei laguntzeko printzipio, eskubide, zerbitzu eta prestazio espezifikoak jasoko

dituen araudi egokiaren garapena sustatzera bideratuta, baita ekintza positiboko balizko neurriak eta beste batzuk ere, Euskadin feminizazioarekin eta pobreziaarekin lotuta dauden fenomenoak ezabatzen laguntzeko.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Gizarte Politiketako Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2024ko lehen sei hilekoan. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Txostena egin ondoren sartuko da. |

3. Kontziliazioaren arloko irizpideak eta jarduerak

•Irizpideak

-Lau sektoreen (publikoa, pribatua, soziala eta familia- eta komunitate-arlokoa) arteko lankidetzatik abiatuta, kontziliazio erantzunkideko neurriak bultzatzea eta erreformatzeari, kontziliaziorako eta hazkuntzari eta, oro har, zaintzari laguntzeko programak, presztazioak eta zerbitzuak indartuz, eta kontziliazio- eta zaintza-egoeren aniztasuna kon-tuan hartuz bizikidetzaren eremuan.

-Udan eta eskolarik gabeko aldietan familiei lana eta familia bateragarri egiteko behar diren baliabideen eskaintza garatzea eta zabaltzea, lehentasuna emanez balio positi-boen transmisioari, kirol- eta jolas-jarduerari eta ingelesaren praktikari.

-Zaintza eta kontziliazio erantzukidea sustatzea, EAEko gainerako administrazio publi-koekin koordinatuta, gurasotasun positiboa laguntzeko eta sustatzeko programak eta neurriak bultzatzea, bai eta Kontzilia Erkidegoa ere, kontziliazio-neurriak hedatzeko go-goeta-, azterketa- eta jarduera-esparru partekatu gisa.

-Lan- eta familia-bizitza bateragarri egiteko neurriak sar daitezkeen bultzatzea, bai eta erantzukidetasuna sustatzea ere, negoziazio kolektiboaren esparruan, hori baita ere-eremurik egokiena langileen beharretara eta enpresen eta sektoreen errealitatera ego-kitzeko, ordutegiak eta lanaldiak malgutzera aurreikusten duten uztartze-programak sustatuz, bai eta telelana ere.

•Jarduerak

•16. jarduera. Aitatasun- eta amatasun-baimenen luzapena

Elkarrizketa sozialaren bidez eta lau sektoreen inplikazioarekin, eremu pribatuan amatasun- eta aitatasun-baimenak, berdina eta besterenezinak, 18 astera zabal-tzea bultzatzea, eta, lehen urrats gisa, Kontzilia Erkidegoak enpresetan ezarri beharreko kontziliazio-neurriari buruzko txosten bat egin dezan sustatzea.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Gizarte Politiketako Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2024ko lehen sei hilekoan. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Txostena egin ondoren sartuko da. |

•17. jarduera. Adingabeen adina luzatzea adingabeak zaintzeko kontratazioan

Egungo 3 urteetatik 14 urteetara luzatzea ondorengo adingabeak zaintzeko adina langileak kontratatuz, 2021-2022 ikasturtera arteko atzeraeraginekin.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Gizarte Politiketako Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2022ko azken sei hilekoan. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Aurrekontuan sartuta dago. |

•18. jarduera. Ordainsari-berdintasunari buruzko kanpainei eta berdintasun-planiei eustea

Laneko Ikuskaritzak ordainsari-berdintasunari eta berdintasun-planiei buruz egiten dituen kanpainei eustea, enpresek genero-berdintasunaren arloan dituzten bete-beharren jarraipena eta kontrola egiteko.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·Jarduera hau aktibatuta dago. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Aurrekontuan sartuta dago. |

•III. ardatza, jarduera estrategikoa: Adinekoen bizitza autonomia eta osoa sustatzea

1. Esparrua

•Jarduera-ardatzaren deskribapen sintetikoa

-Jardun-ildo bultzatzaile bat zehaztea eta garatzea adineko pertsona guztien autonomia, bizitza osoa eta parte-hartze soziala sustatzeko bizi-ziklo osoan zehar, bizi-itxaropen osasungarria handitzen lagunduz, politikak, zerbitzuak eta programak adinekoen belaunaldien itxaropenetara, gaitasunetara edo interesetara egokituz, zahartze aktiborako eta osasungarrirako politikak ezarri eta adinekoen ekarpen soziala bultzatuz. Hori guztia, Zahartze Osasuntsuaren Hamarkadaren esparruan, OMEk sustatuta eta Europako Batzordearen *Zahartzeari buruzko Liburu Berdearen* arabera.

•Lan-hipotesiak

-Zahartzeari buruzko *Liburu Berdearen* tesiari heltzea: "Aurreko belaunaldiek baino urte gehiago eta osasun-egoera hobean bizitzea gure merkatuko gizarte-ekonomiaren arrakastaren eta indarraren seinale da. Hala ere, fenomeno horrek erroka berriak ere planteatzen ditu eta aztertu beharreko aukerak eskaintzen ditu. Eztabaida bat egin behar da zahartzen ari den biztanleriaren potentzial osoa aprobetxatzeko moduari buruz, aurkezten duen berrikuntzarako pizgarriei buruz eta eskatzen dituen erantzun politikoei buruz". (Dubravka Šuica, Europako Batzordeko Demokrazia eta Demografiako lehendakariordea).

•2030erako helburua

-Zahartze aktiboari eta osasungarriari bultzada estrategikoa ematea eta adinekoen autonomia pertsonala, parte-hartze soziala eta bizitza osoa sustatzea.

-Bizi-itxaropena 86 urtera arte eta bizi-itxaropen osasungarria edo desgaitasunik gabea handitzea.

-Helburu horri laguntzeko politikak emaitza onenak eskaintzen dituzten herrialdeen mailan kokatzea. Erreferentzia: zahartze aktiboaren indize europarra.

-Arreta soziosanitarioko eredu integral berri bat sustatzea eta tokiko zaintza-, gizarte- eta osasun-ekosistemak sustatzea, bereziki lehen mailako arreta eta prebentzio sozio-

sanitarioa indartuz, Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategiarekin bat etorriz.

•Legegintzaldiko helburua

-Adinekoekin estrategia integral bat bultzatzea, adinekoen belaunaldien autonomia, bitzta osoa eta parte-hartze soziala sustatzeko, bai eta hauskortasun- eta mendekotasun-egoerei arreta emateko ere.

-Bizi-itxaropena 85 urtera arte luzatzea.

-Zainketen aldeko itun soziala eta zaintzaileen estatutua bultzatzea.

•Orientazio estrategikoak

-Zahartze aktiboa eta osasungarria sustatzen jarraitzea, eta adinekoen beren gaitasunak eta talentua garatzen laguntzea, bizi-ziklo osoan zehar beren autonomia, bitzta osoa eta gizarte-ekarpena bultzatuz, bai eta gizarte-kohesioa, belaunaldien arteko elkartasuna eta adinekoen eta gazteen bizi-proiektuak sustatzea ere.

-Zahartze aktiboa bitzta osoaren ikuspegian txertatzea, adineko autonomoak zein laguntza eta zaintza gero eta handiagoak behar dituztenak kontuan hartuta.

-EAEko administrazio publikoen lankidetzat sustatzea, adineko pertsonen nahi gabeko bakardadea prebenitzeko eta horri arreta integrala emateko programen garapenean, zahartze osasungarria lortzeko funtsezko faktoretzat hartuta.

-Belaunaldien arteko harremanak sustatzea, batez ere gazteen eta adinekoen artekoak, interakziorako eta trukerako bitarteko gisa, lankidetzat eta elkarrekiko laguntza, elkar ulertzea, errespetua eta ezagutzak eta esperientziak transmititzea bultzatzeko.

-Adinekoen zaintza sozialen eta sanitarioen eredu berri bateranzko trantsizio-politikak bultzatzea, zainketetarako gaitasunen agenda bat landuz, pertsona guztiei beharrezko arreta eskainiko diena profesional kualifikatuek eta kalitatezko enpleguak dituzten profesionalak.

-Familien kontziliazioa eta erantzukidetasuna ziurtatuko duten neurriak sustatzea, erakundeen zaintza eta profesionalizazioa indartuz, zaintzaren sektorean zaintza profesionaleko eta kalitatezko enpleguko poltsak sortuz, eta lanbide-esperientziaren bidez edo bide ez-formalen bidez eskuratutako lanbide-gaitasunak egiaztatze sistemak bat abian jarritik, prestakuntza kualifikatzaile espezializatua sustatuz, profil profesional berriak garatuz eta plangintza estrategikoa eginez, besteak beste, gizonek zainketetan parte hartzea, erantzukidetasunari eta haiei zuzendutako zaintzei buruzko prestakuntza-planak bultzatuz. Era berean, zaintzaren eta erantzukidetasunaren arloko neurriak kontuan hartuko dute telelanak zainketan eta erantzukidetasunean duen eragina.

2. Irizpideak eta jarduerak zahartze osoaren eta osasungarriaren esparruan

•Irizpideak

-Zahartze osoa eta osasungarria sustatzeko politikak indartzea, adinekoekin Euskal Estrategia bat artikulatuz eta garatuz, gizarte-kohesioa eta belaunaldi arteko elkartasuna sustatuz.

-Adinekoen arteko elkarrizketa, akordioa eta lankidetzat sustatzea. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Adinekoen Batzordea eta Euskadi Langunkoia Sustraieratik eta Adinekoen Batzordea sustatzen jarraitzea, adinekoen erakunde eta sareekiko elkarrizketa zibilaren adierazpen gisa.

-Adineko autonomoekin eta autonomia sustatzera bideratutako gizarte-politikak bultzatzea, baita hauskortasun- edo mendekotasun-egoeran dauden adineko pertsonenak ere.

-Belaunaldien arteko lankidetzeta-programak garatzea, adinekoen eta gazteen artean ezagutza transferitzea sustatzeko, bai eta baterako beste ekimen batzuk eta, oro har, belaunaldien arteko elkarrizketa eta lankidetzeta sustatzeko ere.

•Jarduerak

•19. jarduera. Adinekoekin euskal estrategia bultzatzea

Zahartze aktiboa bizitza osoko ikuspegian integratuko duen adineko pertsonetikiko Euskal Estrategia definitzen jarraitzea, adineko autonomoak eta autonomiarako laguntza (zaintza) gero eta handiagoak behar dituztenak kontuan hartuta, eta belaunaldien arteko elkartasunetik abiatuta, adinekoen bizitzako adin-aniztasunari edo faseei eta erretiroari aurre egiteko moduei buruzko eztabaida piztuko duena.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Gizarte Politiketako Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·Jarduera hau abian da. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Estrategiaren definizioa amaitu ondoren sartuko da. |

•20. jarduera. Euskadi lagunkoia sustraietatik indartzea

Euskadi Lagunkoia Sustraietatik indartzen jarraitzea, estrategia tokiko planoarekin lotzeko eta hiri lagunkoia adinekoekin sustatzeko tresna gisa.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Gizarte Politiketako Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·Jarduera hau aktibatuta dago. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Aurrekontuan sartuta dago. |

3. Zaintzen arloko irizpideak eta jarduerak

•Irizpideak

-Tokiko zaintza-, gizarte- eta osasun-ekosistemak sustatzea landa-ingurunean, zerbitzu ez-presentzialak (BetION) edo deszentralizatuak (CRADak, adinekoentzako ostatu lagundurako alternatibak...) garatuz, desagertzeko arriskuan dauden landa-guneetan eta koadrila-buruetan (Maeztu...) jardunez, hala dagokionean.

-Zaintzen sektorea profesionalizatzea, pertsona ardatz duen zainketa-eredu berriari lotutako enplegu-aukera berriak eta kualifikazio-eskakizunak aztertuz.

-Silver Economy sustatzea, enplegu-aukerak sortzeko ikuspegitik, eta, zehazki, ekimen berritzaileak sustatu eta bultzatzea zaintzaren ekonomiaren sektorearen barruan, sektore hori agerian jarriz eta balioetsiz.

•Jarduerak

•21. jarduera. Proiektu pilotuak aktibatzea

Proiektu pilotuak diseinatu eta aktibatzea, definitutako jarduera-irizpideen arabera, ingurune hurbilenean edo etxean ahultasun-egoeran dauden adinekoei arreta zabaltzea eta indartzea ahalbidetuko dutenak.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Gizarte Politiketako Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·Jarduera hau aktibatuta dago. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Aurrekontuan sartuta dago. |

•22. jarduera. Arrisku soziosanitarioko faktoreak detektatzea

EAEko 60 urtetik gorako pertsonen artean, arrisku soziosanitarioko faktoreak detektatzea ahalbidetuko duen tresna bat eraikitzea, iragarpen-faktore jakin batzuk definituz eta mailakatuz.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Osasun Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2023an, lehen txostena. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Tresna zehaztu ondoren txertatuko da. |

•23. jarduera. Belaunaldi-erreleboko zikloa kudeatzeko estrategia diseinatzea

Belaunaldien arteko errelebo-zikloa kudeatzeko estrategia diseinatzea eta abian jartzea hirugarren sektoreko erakunde, enpresa eta antolakundeetan.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Gizarte Politiketako Sailburuordetza. ·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·Proposamenaren lehen zirriborroa 2023an. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Estrategia diseinatu ondoren txertatuko da. |

•IV. ardatza, jarduera estrategikoa: Migranteen gizarteratzea

1. Esparrua

•Jarduera-ardatzaren deskribapen sintetikoa

-Erakartzeko jarduera-ildo bat zehaztu eta garatzea, migratzaileak iristeko zailtasunak gainditzeko, eta gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza-ibilbideak eta gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide erabilgarri eta eskuragarriak ezartzea.

•Lan-hipotesiak

-Gure herriaren demografiak migratzaileen ekarpena behar du. Horretarako lehenengo helburua integrazioa da. Premisa da bizileku- eta lan-baimenen arloko baldintzak aldatzea eta erraztea. Hala ere, ahalmen hori EAEko eskumen-eremutik kanpo dago. Bien bitartean, eta euskal erakundeen eskumenen barruan, lehenetsuneko da gizarteratzea eta laneratzeko, eta, horretarako, beharrezkoa da ibilbide lagunduak eta sustatuak zehaztea, prestakuntza, trebakuntza, kualifikazioa, homologazioa eta profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko.

•2030erako helburuak

-Gizarteratzeko eta Integratzeko Euskal Indize sintetikoaren oinarritzko zazpi dimentsioak % 10 handitzea, migratzaileak Euskadin integratzeari dagokionez, inoren kargura ez dauden adingabeak izateari uzten dioten gazte migratzaileak barne.

•Legegintzaldiko helburuak

-Migrazio-arloko eginkizunak eta zerbitzuak transferitzea, euskal administrazioak bere gain hartu ahal izan dezan lan-baimenen eta Euskadiren eskumen-tituluetan sar daitezkeen jarduera guztien kudeaketa.

-Migratzaileak iristeko zailtasunak ahal den neurrian murriztea eta harrerako euskal eredia definitzea eta bultzatzea.

-Migratzaileen prestakuntza-, gaikuntza-, kualifikazio-, homologazio- eta profesionaltasun-ziurtagirirako ibilbideak definitzea, bai eta gizarteratze- eta laneratze-ibilbide erabilgarriak eta eskuragarriak ere.

•Orientazio estrategikoak

-Migraziorako Euskal Itun Soziala da euskal erakundeen eta gizarte-eragileen estrategia partekatua definitzen duen esparru orokorra, migratzaileen eta asilo-eskatzaileen harreraren eta integrazioaren arloan.

-Migratzaile guztiei harrera duina eta inolako diskriminaziorik gabea bermatzea eta herritarrentzat aurreikusitako sistemetatik erantzun egokia ematea.

-Herritarren, Immigrazioaren eta Asiloaren VI. Kulturarteko Plana (2022-2025), babes-sistemak eta gizarte-zerbitzuak, aurreikusitako neurriak, zerbitzuak eta baliabideak egokitztea eta indartzea, egoera bakoitzari behar bezala, duintasunez eta behar bezala erantzun ahal izateko.

2. Migratzaileak gizarteratzeko irizpideak eta jarduerak**•Irizpideak**

-Estatuko Gobernuari migrazio-arloko eginkizunak eta zerbitzuak transferitzeko eskatzen jarraitzea, Immigrazioari buruzko Euskal Itun Sozialean adostutako kontzeptu- eta programa-esparruan oinarrituta, migrazioa Euskadin erakartzeko, hartzeko eta integrazteko eredu bat gara dezan.

-Migratzaileei eta errefuxiatuei Euskadin kokatzeko eta gizarteratzeko beharrezkoak diren irizpideak egiten laguntzea, bai eta gizarte-babesekeko sistemetara iristeko prozesuan laguntzea ere, laguntza horiek beren egoera eta behar espezifikoetara egokituz.

•Jarduerak**•24. jarduera. Migraziorako Euskal Itun Sozialaren garapena eta urteko ebaluazioa**

Migraziorako Euskal Itun Soziala garatzen jarraitzea, itun horrekiko atxikimendua gizartean eta erakundeetan zabaltzea, eta haren betetze-mailaren jarraipena eta urteko ebaluazioa egitea.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Gizarte Politiketako Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·Urteko memoria eta ebaluazioa. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Jarduera berrien urteko memoria bakoitzarekin batera gehituko da. |

•25. jarduera. Transferentzia lehenestea asilo-migrazioaren arloan, eta migratzaileak hartzeko eta integrazteko euskal eredia diseinatzea

Migrazioaren eta asiloaren arloko eskumenetik egiteke dauden transferentzien egutegian lehenetasunezko izaerari eustea. Hori oinarri hartuta, migratzaileen ha-

rrerarako eta integraziorako euskal eredu diseinatu eta abian jartzea. Eredu horren barruan, laguntza pertsonalizatuko euskal zerbitzu bat egongo da, migratzaileak gizarteratzaera eta laneratzaera bideratua, Gobernu Programaren 90. konpromisoaren 5. ekimenean aurreikusitakoaren ildotik.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Gizarte Politiketako Sailburuordetza. ·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·Transferentziaren gauzatzearen arabera. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Definizioa egin ondoren sartuko da. |

3. Gizarteratzearen eta laneratzearen eta mugikortasunaren arloko irizpideak eta jarduerak

•Irizpideak

-Migratzaileak laneratzeko ibilbide pertsonalizatuen lana indartzea, ikuspegi integral eta zeharkako batetik, orientazioaren, prestakuntzaren eta erregularizazio-prozesuetan laguntzearen bitartez, lan-eremura igarotzea ahalbidetzeko (Enplegu Zerbitzu Publikoa).

-Migratzaileak erakartzera bideratutako jarduera eta ekimen berritzaileak garatzea, lan-merkatuaren beharrei erantzuteko.

-Enplegu-zerbitzu publikoaren esparruan, eta beste administrazio batzuekin lankidetzan, migratzaileak laneratzeko sektore arteko programak garatzea, lan-merkatuan enplegu duineko baldintzetan sartzeko erregularizazio-prozesua hasi eta amaitu ahal izateko.

-Gazteen eta migrazioen mugikortasun-proiektuei laguntzea, pertsona eta familia gazteak erakartzen, atxikitzen eta itzultzen laguntzeko, edo, hala badagokio, Euskadin jaio edo bizi izandakoak orain Euskaditik kanpo bizi direnak euskal instituzioek, enpresek edo erakundeek parte hartzen duten ekimenekin lotzeko.

•Jarduerak

•26. jarduera. Talentua atxikitze, garatzeko eta erakartzeko programa bat abian jartzea

Talentua Euskadin atxiki, garatu eta zentzuz erakartzeko programa espezifiko bat abian jartzea, Gazteen Legean aurreikusitakoaren esparruan.

| | |
|-------------------------|---|
| Arlo arduraduna | ·Gazteria Zuzendaritza. ·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2023an zehar. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Definizioa egin ondoren sartuko da. |

•27. jarduera. Euskarri Estrategia garatzea

Helduarora igarotzeko prozesuetan, familiarentzako laguntza-sarerik ez duten gazteei laguntzeko programa pilotua eta Euskarri Estrategia garatzen jarraitzea, gazte horiek migratzaileak izan edo ez izan, eta babes-saretik kanpo egon ala ez.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Gizarte Politiketako Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·Jarduera hau aktibatuta dago. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Aurrekontuan sartuta dago. |

HIRUGARREN ATALA

Zeharkako jarduera-ildoak

•1. ildoak, zeharkako jarduera: **Landa-balioa handitzea**

1. Esparrua

•Zeharkako jardun-ildo honen deskribapen sintetikoa

-Landa-garapenerako politika integrala bultzatzea, lurralde-orekan eta gizarte-kohe-sioan oinarritua, landa-ingurunearen zahartzea eta despoblazioa lehengoratzeko la-gunduko duena eta Euskadiko landa-eremuak bizitzeko eta jarduera sozioekonomiko bideragarriak eta jasangarriak egiteko gune erakargarriak izan daitezen lortuko duena, hau da, bizi-kalitatearekin eta lehiakortasunarekin.

•Lan-hipotesiak

-Osasun demografikoak hiri-eremuaren eta landa-eremuaren arteko harreman ekolo-gikoa dakar. Horretarako, baldintza egokiak sustatu eta babestu behar dira, landa-ingurunearen berezko proiektu sozioekonomikoen bideragarritasun- eta populazio-desorekak birbideratzeko.

•2030erako helburuak

-Landa-ingurunea zahartzeko eta despoblatzeko joera epe laburrean geldiaraztea eta 2030erako lehengoraztea, natura-ingurunearen edo populazio txikiaren berezko jarduera so-zioekonomikoak proiektu erakargarri, bideragarri eta jasangarriak izan daitezen lagunduz.

-Landa-biztanleriaren hazkundera sustatzea, bai igoerak izaten hasi diren eskualdeetan, bai beherakadak izan dituzten eskualdeetan, Euskal Herriko Unibertsitateak egindako "Arabako despoblazio-prozesuaren azterketa demografikoa, azterketa eta diagnosti-koa (2021)" oinarri hartuta.

•Legegintzaldiko helburuak

-Landa Ingurunearen Garapenerako Lege berria onartzea eta abian jartzea, bai eta lege horretatik eratortzen diren gobernanzarako tresna eta formula berriak ere, eta NPBren hurrengo Plan Estrategikoko 2. oinarriko neurriak diseinatzea (Landa Garapena). Neurri horiek izango dira 2023-2027 programazio-aldian abian jarriko diren laguntza-progra-men oinarri.

-Smart Villages kontzeptua eta gizarte-berrikuntza sakontzea, landa-eremuen garapen sozioekonomikoari laguntzen dioten elementuak diren aldetik.

•Orientazio estrategikoak

-Erronka demografikoari buruzko estrategia honetan, zeharkako izaerarekin manten-tzea hiri- eta landa-dimentsio bikoitza jarduerak aurreikustean, diseinatzean eta aplika-tzean, landa-inguruneak planteatzen dituen premia berezietara egokitzeko eta horiei erantzuteko jarraibide espezifikoak ezarri.

-Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren oinarria lurraldeen arteko oreka eta kohesioa bilatzea da, eta aitortzen du landa-eremuetako herritarrek, hiriburuen ere-mu geografikoan bizi ez direnek, zerbitzuak eskuratzeko eta garraio publikoa izateko duten eskubidea.

-Elikadura-kateari buruzko Legea betetzea, lehen sektoreko produktuei bidezko pre-zioak bermatzeko eta familien errentagarritasun ekonomikoa eta jasangarritasuna eta landa-eremuko bizi-proiektuak bultzatzeko.

2. Jarduerak

•28. jarduera. Landa Garapeneko Legea onartzea

Landa Garapeneko Legea onartzea eta haren aurreikuspenak garatzea.

| | |
|-------------------------|---|
| Arlo arduraduna | ·Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2022an eta erregelamendu-garapenean 2023an. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Onartu ondoren sartuko da. |

•29. jarduera. Landa-ingurunearekin lotzeko pizgarriei buruzko azterlan egitea

Lehen azterlan bat egitea, bertako zein migratzaile gazteentzako pizgarri-programa bat definitzera bideratua, landa-ingurune bizi-proiektuekin lotzea sustatzeko.

| | |
|-------------------------|---|
| Arlo arduraduna | ·Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetza ·Gazteria Zuzendaritza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2023an. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Azterketa egin ondoren sartuko da. |

•2. ildo, zeharkako jarduera: **Prospekzioa, dibulgazioa eta komunikazioa**

1. Esparrua

•Jarduera-ardatzaren deskribapen sintetikoa

-Gai demografikoa lehentasunezko arreta sozialeko, politikoko eta instituzionaleko lehentasunen agendan kokatzera bideratutako prospekzio-, dibulgazio- eta komunikazio-ekimenak modu artikulatuan garatzea. 2022tik aurrera, maiatzean “Maiatza demografikoa” izeneko demografiari buruzko urteko promozioan jarriko da arreta. Aldi horretan, urtero, erakundeen publizitate-kanpainak, dibulgazio-ekimenak, biltzarrak, jardunaldiak edo mintegiak sustatuko dira, berriazko azterlanak argitaratuko dira eta balantzeak eta jarduera-planak aurkeztuko dira. Komunikabideak gai horri buruzko informazio, erreportaje edo kroniken bidez gonbidatuko dira ekarpenak egitera.

•Lan-hipotesiak

-Arazo demografikoak ez du, orain arte, garrantzi estrategikoarekin bat datorren arreta-mailarik erakarri. Ez du lehentasunezko esparru nahikorik lortu agenda publikoan, ez Legebiltzarrean, ez hedabideetan, ez gizarte-kezken artean. Beharrezkoa da ahaleginak etengabe inbertitzea prospekzio, dibulgazio eta komunikazioan. Konponbide-prozesuek gizarte informatua eta gai honen konplexutasunaren jakitun eskatzen dute.

•2030erako helburua

-Urtero, maiatzean, erakunde-maila guztietatik (udalak, foru aldundiak eta Eusko Jaur-larritza), hirugarren sektoretik, ekimen pribatutik edo unibertsitate- eta ikasketa-esparrutik datorren erronka demografikoari buruzko hausnarketa-, dibulgazio- eta proposamen-ekimenak elkartzea ahalbidetuko duen dinamika sendotzea.

-Prospekzio-tresnak artikulatzea, modu erregularrean eta jarraituan diagnostiko sako-
nak egin ahal izateko, bai emantzipazio berantiarrean edo jaiotza-tasan eragina duten
faktoreei buruz, bai errealitate demografiko osoari buruz eta horren bilakaerari, kausei
eta ondorioei buruz.

-Kontzientzia sozial eraikitzailea sendotzea problematika demografikoari dagokionez,
eta sinergia eta *auzolanaren* pentsaera bultzatzea.

•Legegintzaldiko helburua

-Gai demografikoa lehentasunezko arreta sozial, politiko eta instituzionaleko lehenta-
sunen agendan kokatzera bideratutako prospekzio-, dibulgazio- eta komunikazio-eki-
menak modu artikulatuan garatzea.

-Erronka demografikoari buruzko gizarte-kontzientzia kritikoa sortzen laguntzea,
bai eta erantzunkidetasuna eta belaunaldien arteko konpromisoa bezalako balioak
sustatzen ere.

-Demografiaren erronkari erantzun konstruktiboa emateko erakundeek herritarren zer-
bitzura jartzen dituzten neurriei buruzko informazio argia eta eraginkorra eskaintzea.

•Orientazio estrategikoak

-Sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak garatzea, gai demografikoa arreta sozial, poli-
tiko eta instituzionaleko lehentasunen agendan kokatzera bideratutako komunikazio-ka-
nal guztietara joz.

-Sail bakoitzak eta GAZ zerbitzuak gazteen emantzipazioa errazteko eta familia-proiek-
tuak eraikitzeke eskura dauden ekimen publiko guztien berri izan dezaten sustatzea,
bai prestazio eta laguntza ekonomikoei dagokienez, bai kontziliazioari, hezkuntzari,
etxebizitzari edo enpleguari dagokienez.

-Erronka Demografikorako 2030 Estrategian jasotako lan-ildoak garatzea, garapen-pro-
zesu osoan beharrezkoak diren partaidetza- eta ebaluazio-tresnak sustatuz, eta propo-
samenak gauzatzeko behar adina partida ekonomiko izatea.

2. Jarduerak

•30. jarduera. Urteko prospekzio-, dibulgazio- eta komunikazio-plan bat garatzea

Urtero, erronka demografikoari buruzko prospekzio, dibulgazio eta komunikazio
sozialaren arloko lan-plana egitea, "Maiatza demografikoa"ren programazioa bar-
nean hartuta.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | · <i>Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia.</i> |
| Abian jartzeko egutegia | · <i>Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan.</i> |
| Aurrekontu-zenbatespena | · <i>300.000 euro urtean.</i> |

•31. jarduera. Aldian behingo azterlan prospektiboak egitea

Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin eta EUSTATEkin lankidetzan, demogra-
fia-errealitatea etengabe aztertzeke prozesu bat egitea, bai eta demografiaren bi-
lakaera, kausak eta ondorioak aztertzeke prozesu bat ere, prospekzioko, dibulgazio-
ko eta komunikazioko urteko planetan sartuko diren lanen programazio batekin.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia. |
| Abian jartzeko egutegia | ·Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·30. jardueran sartuta. |

•32. jarduera. Erronka demografikoak enpleguan dituen ondorioen azterketa bultzatzea

2022ko martxoaren 15ean Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren Lan Planean jada adostu zen demografiak enpleguan duen erronkaren ondorioei buruzko azterketa egitea. Azterketa hori hiru aldeko elkarrizketan egingo da sindikatuekin, enpresa-elkarteekin eta gobernuekin, eta Eusko Legebiltzarrera bidaliko da amaitutakoan.

| | |
|-------------------------|---|
| Arlo arduraduna | ·Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2023an zehar. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Hala badagokio, amaitu ondoren sartuko da. |

•33. jarduera. Baliabideen gida bat egitea eta zabaltzea

Baliabideen gida bat egitea, gazteen emantzipazioa errazteko eta familia-proiektuak eraikitzeke eskura dauden ekimen publiko guztien ezagutza sustatzeko, bai prestazio eta laguntza ekonomikoei dagokienez, bai kontziliazio, hezkuntza, etxebizitza edo enpleguaren arloan.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia. |
| Abian jartzeko egutegia | ·2023ko lehen sei hilekoa. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Hala badagokio, amaitu ondoren sartuko da. |

•3. ildo, zeharkako jarduera: Aurrekontua, jarraipena eta ebaluazioa

1. Esparrua

•Jarduera-ardatzaren deskribapen sintetikoa

-Aginte-taula integral bat eta jarraipen- eta ebaluazio-adierazleen sistema bat izatea, estrategia horren barruan aktibatzen diren neurrien eta politiken bilakaera demografikoa eta eragina baloratu ahal izateko. Aurrekontu-aurreikuspenarekin batera, aginte-taula hori metodologikoki osatuko da jarraipeneko urteko memoriekin eta hiru urtean behin egingo diren ebaluazio-prozesuekin. Bi tresna horiek Erronka demografikorako 2030 Euskal Estrategian une bakoitzean sartu ahal izango diren neurri zuzentzaileak identifikatzera bideratuko dira.

•Lan-hipotesiak

-Estrategiaren azken helburua da biztanleriaren piramidearen oreka berreskuratzea eta euskal gizartea gaztetzea. Ildo horretan, gazteen emantzipazioa eta familia-proiektuen eraikuntza funtsezko faktoreak dira. Edonola ere, eta gai konplexu

honetan, estrategia hasierako diagnostikoetatik abiatuta diseinatzen da, eta diagnostiko horiek ezin dira itxi. *Trantsizio-politikak kudeatzeko* testuinguruan sortu behar dira, definizioz politika horiek etengabe hobetzera irekita. Alde horretatik, jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak funtsezkoak dira. Erronka demografikoaren inguruko *ikaskuntza-komunitate* bat sustatzeko aukera ere ematen dute, Euskadin sail guztiek, gainerako erakundeek eta lau sektoreek (publikoa, pribatua, soziala, komunitarioa) parte har dezaten, baita unibertsitateek eta beste ezagutza-zentro batzuek ere, helize laukoitzeko ikuspegitik.

•2030erako helburua

-Demografiaren erronkari heltzeko prozesu metodologiko bat sendotzea, datuetan, ekintza-hausnarketa-ekintzan eta neurrien zuzenketan eta doikuntzan oinarrituta, estrategia kudeatzeko aginte-taula integral, sinple eta garrantzitsu baten adierazleetatik abiatuta, helburu eta faktore giltzarriei lotuta.

-Estrategiaren tarteko bi ebaluazio-prozesu garatzea, 2025eko eta 2028ko lehen seihilekoan aurkezteko, baita amaierako ebaluazio bat ere, 2031ko lehen seihilekoan aurkezteko.

•Legegintzaldiko helburua

-Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategian jasotako aurreikuspenak eta jarduerak betetzen direla egiaztatzeke jarraipen-memoriak egitea urtero.

-Urteko aurrekontuetan "Lehen ataleko Jarduera berriak bultzatzea, epe laburrerako inpaktu-irizpidearekin" jardueretarako erabiliko diren aurrekontu-baliabideak jasotzea, bai eta sailen ohiko aurrekontutik aparteko gastu bat edo gastu gehigarri bat ekar dezaketenak ere.

•Orientazio estrategikoak

-Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia esparru-estrategia gisa ezartzea, diagnostiko eta ebaluazio jarraitu, ireki eta esperientziatik abiatuta alda daitekeen bategan oinarrituta.

-PDCA ziklo bat metodologikoki garatzea (planifikatzea [Plana], egitea [Do], egiaztatzea [Check] eta jardutea [Act]), *erronka demografikoaren kudeaketaren* inguruan, zeina, ikaskuntza-testuinguru horretan eta saiakera gisa, honela ulertzen baita:

- bizi-ziklo osoa kontuan hartuta, biztanleria-piramidearen oreka egokia, nahitaez eze-gonkorra, eratzea eta mantentzea;

- komunitate batek behar adina biztanle izan ditzan, profil eta gaitasun egokiak izan ditzan, eta banaketa egokia izan dezan (adinez, geografikoki...), garapen ekonomikoa, bizi-kalitatea eta gizarte- eta lurralde-kohesioa bermatzeko;

- halako moldez non pertsonak eta familiek beren bizi-proiektuak hedatu ahal izango dituzten, autodeterminatuz, beren aukeren arabera eta ahalik eta autonomia handienarekin.

2. Jarduerak

•34. jarduera. Aurrekontuaren isla

Urteko aurrekontuetan lehen ataleko jardueretarako erabiliko diren baliabideak adieraztea. Jarduera berriak bultzatzea, epe laburrerako inpaktu-irizpidearekin, bai eta sailen ohiko aurrekontutik aparteko gastu bat edo gastu gehigarri bat ekar dezaketenak ere.

| | |
|-------------------------|---|
| Arlo arduraduna | ·Ogasun Saila. |
| Abian jartzeko egutegia | ·Urtero, aurrekontu-prozesuan. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Jarduera bakoitzaren ardura duen sail bakoitzari dagokio kasu bakoitzean dagokion aurrekontu-islara garatu, zehaztu eta jasotzea, dagozkion prozeduren bitartez (*). |

(*) **1. oharra.** Lehen ataleko jardueren aurrekontu-zenbatespen hau. Jarduera berriak bultzatzea, epe laburrerako inpaktuaren irizpideari jarraikiz, garatu nahi den ekimenaren dimentsioaren adierazle gisa hartu behar da.

| | |
|---|-------------|
| ·Hilean 200 euroko zuzeneko laguntzak | |
| Ardurapeko seme-alaba bakoitzeko, hiru urte bete arte: | 125.000.000 |
| ·Ekintzailletza, pertsonen prestakuntza edo etxebizitza | |
| Gazteak (zehaztu gabe, aurretik azterlana egin ondoren) | 20.000.000 |
| ·0-2 urteko etaparen doakotasuna, | |
| Haurreskolak Partzuergoarena (ikasturte osorako)) | 7.000.000 |

(*) **2. oharra.** Bigarren eta hirugarren ataletan, jarduera asko sendotzen ari diren eta dagokion arlo edo sailaren aurrekontu arruntean islatuko diren abiarazitako jardueri dagozkie; beste jarduera batzuek, beren izaeragatik, ez dute aurrekontu-eragin gehigarririk, eta, azkenik, beste kasu batzuetan, lehen fasean aurreikusitako txosten-, diseinu- edo zehaztapen-tresnak amaitzeak baldintzatuko du haien aurrekontu-islara.

(*) **3. oharra.** Urteko aurrekontuek, urteko jarraipen-memoriek eta aurreikusitako ebaluazio-prozesuek estrategia horretara bideratutako baliabide gehigarriak islatu behar dituzte, bai lehen ataleko jarduera berriei dagokienez, bai oraindik diseinu-fasean dauden edo ekimen berriak ebaluatzeko eta txertatzeko prozesuetatik datozen ekimenak zehaztearen ondoriozko jardueri dagokienez.

·35. jarduera. Urteko jarraipen-memoriak egitea

Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategian jasotako aurreikuspenen eta jardueren betetze-mailari buruzko urteko jarraipen-memoriak egitea, bai eta horiek aurrekontuan duten islara ere.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | ·Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia. |
| Abian jartzeko egutegia | ·Urtero, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, 2024tik aurrera. |
| Aurrekontu-zenbatespena | ·Aurrekontuan eraginik ez dauka. |

·36. jarduera. Ebaluazio-prozesuak bultzatzea

2025eko eta 2028ko lehen seihilekoan aurkeztu behar diren tarteko ebaluazio-prozesuen diseinua eta enkargua eta 2031ko lehen seihilekoan amaitu behar den azken ebaluazioa planifikatzea. Hiru ebaluazio-prozesu horiek Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren Aginte Taula Integrala erabiliko dute Eranskinean aurkezten dena. Aginte-taula hori 3 adierazle-multzotan egituratzen da: egoera, helburuak eta funtsezko faktoreak.

| | |
|-------------------------|--|
| Arlo arduraduna | <i>·Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia.</i> |
| Abian jartzeko egutegia | <i>·2024an tarteko lehen ebaluazio-prozesua prestatzea.</i> |
| Aurrekontu-zenbatespena | <i>·Prozesuaren definizioa zehaztu ondoren, aurrekontua egingo da.</i> |

ERANSKINA

Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren

Aginte-taula integrala

1. Aurkezpena

Aginte-taula integral bat osatu da, adierazle garrantzitsuen kopuru txiki batekin, demografia-erronkaren kudeaketan funtsezkoak diren helburu eta faktoreen aldizkako jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

Lerroetan, aginte-taula 3 bloke handitan egituratzen da, adierazle moten arabera: egoera-adierazleak, testuinguruari eta joera demografikoei dagozkienak; adierazle/helburuak, strategiaren emaitzekin lotutakoak; eta adierazle/faktore giltzarriak, helburuak lortzeko eragina izan dezaketen faktoreei buruzko hipotesietan oinarrituak.

Lehenengoek funtsezko bi joeraren handitasunaren irudia ematen dute: biztanleriaren zahartzea eta biztanleria landunaren ordezkapen eraginkorrerako zailtasuna. Bigarrenek strategiaren bost ardatzetako bakoitzean lortu nahi diren emaitzak jorratzen dituzte. Azken horiek strategiaren proposamenen eragina neurtzen laguntzen dute.

Zutabeetan, aginte-taula erronka demografikoaren kudeaketari buruzko serie historiko bat edukitzeko egituratzen da. Lehenengo zutabeak ardatz bakoitzaren adierazleak ematen ditu, eta gainerakoak denboran zehar neurtuko dira. Bigarren zutabeak ("jatorria") adierazlearen abiapuntua islatzen du, datuen jatorri diren eragiketen aldizkakotasunaren arabera eskuragarri dagoen azken datuaren data kontuan hartuta. Hala, onena ez bada ere, jatorrizko datuak 2018, 2019, 2020 eta 2021ekoak dira. Nolanahi ere, adierazle guztiak 2022tik 2023ra bitartean eguneratzea espero da, eta horrek aukera emango du serie historiko bat ezartzeko.

2. Aginte-koadroaren ezaugarri nagusiak

Koadro homogeneoa da ardatz bakoitzeko adierazle-kopuruari dagokionez, eta garrantzi bera ematen die strategiaren ardatz guztiei. Adierazle-helburuetan ardatz bakoitzeko 3 adierazle aurkezten dira; adierazle-faktore giltzarrietan, berriz, 6 sartzen dira.

Adierazleak helburuekin eta horiek lortzeko funtsezko faktoreekin lotuta daude, baita helburuen jomuga diren taldeekin ere. Esate baterako, 1. ardatzean (gazteen emantzipazioa), adierazleak 16-29 urteko jomuga-taldean zentratzen dira, gazteen emantzipazio-tasa izan ezik; izan ere, Europako beste eskualde batzuekin alderatzeko aukera dela-eta, 18-34 urteetan dago ezarrita. Adinekoei buruzko 3. ardatzean, aldiz, adierazle gehienak 65 urtetik gorako kolektiboari buruzkoak dira.

Sartutako adierazle guztiak eskuragarri daude, aldizka argitaratzen dira eta iturri estatistiko fidagarrietatik datoz, eta Europa mailan konpara daitezke. Batzuek herrialdeko helburuekin edo gobernu-programako beste batzuekin dute zerikusia, bai eta 2030 Agendarekin edo Gizarte Eskubideen Europako Zutabearekin ere (ikus gizarte-adierazleen taula berrikusia, Zutabearen Ekintza Plana barne hartzen duena).

Europar Batasuneko beste eskualde batzuekin eta eskualdeko biztanleria-estatistikekin konparatzeko diseinatutako adierazleak dira¹. NUTS3 (lurralde historikoak) edo NUTS2

1 Bereziki interesgarriak dira honako hauek: a) biztanleriaren egitura adin-talde handien arabe-

(EAE) mailan erabilgarri dauden adierazleak kontuan hartzen saiatu gara. NUTS: Estatistikako Lurralde Unitateen nomenklatura.

Adierazleak, ahal den neurrian, adinaren, sexuaren, jatorriaren (jaioterria) eta desgaitasun-egoeraren arabera bereizi beharko lirateke, GJHPan aurreikusitakoaren ildotik. Gazteei buruzkoak bi adin-tartetan (18-24, 25-29) bereizten saiatu beharko lirateke, emantzipazioak izan ezik (18-34).

Komeni da azpimarratzea zeharkako emaitzen ebaluazioaren adierazle izango dela jarduera, proiektu, zerbitzu edo programa batean parte hartu ondoren emantzipatzen diren gazteen kopurua, bai eta estrategiaren ekimenetan parte hartzen duten gazte emantzipatuen kopurua ere, haien emantzipazio-prozesua eta bizi-proiektu autonomoa sendotzeko.

Azkenik, adierazle guztiak hobetu daitezke, eta adierazleak hobetzeko/aldatzeko proposamen arrazoituek aginte-taula integral ahalik eta osoena eta alderagarriena lortzen laguntzen dute.

ra; b) hirugarren adinekoen mendekotasun-tasa; c) aldaketa demografikoaren batez besteko tasa gordina; d) biztanleriaren batez besteko aldaketa-tasa gordina; e) batez besteko migrazio-tasa gordina; f) jaiotza-tasa gordina; g) ugalkortasun-tasa osoa; h) jaiotzako bizi-itxaropena. Hasiera batean, horiek guztiak NUTS3 eskualdearen (gure ondorioetarako, lurralde historikoen) edo NUTS2 eskualdearen (Espainiako estatuaren kasuan, autonomia-erkidegoak) arabera bereizita lor daitezke. NUTS = Estatistikako Lurralde Unitateen Nomenklatura. Ikusi: [#https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?Title=Population_statistics_at_regional_level](https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?Title=Population_statistics_at_regional_level) #Regional_populations

3. AGINTE-TAULA INTEGRALAREN ADIERAZLEAK

Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia kudeatzeko

| A. EGOERA-ADIERAZLEAK | | | | |
|--|------------------------|-------------|-------------|-------------|
| | Jatorria | 2024 | 2027 | 2030 |
| Biztanleriaren egitura, adin-taldean, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera | (2021) | | | |
| Araba: 19 urtetik beherakoak (gizonak/emakumeak) | 32.911 / 30.821 | | | |
| 20-64 urteko tartea (gizonak/emakumeak) | 97.570 / 97.519 | | | |
| 65 urtetik gorakoak (gizonak/emakumeak) | 31.756 / 39.612 | | | |
| Bizkaia: 19 urtetik beherakoak (gizonak/emakumeak) | 103.006 / 96.647 | | | |
| 20-64 urteko tartea (gizonak/emakumeak) | 335.152 / 341.537 | | | |
| 65 urtetik gorakoak (gizonak/emakumeak) | 112.379 / 155.402 | | | |
| Gipuzkoa: 19 urtetik beherakoak (gizonak/emakumeak) | 70.230 / 66.119 | | | |
| 20-64 urteko tartea (gizonak/emakumeak) | 209.835 / 207.799 | | | |
| 65 urtetik gorakoak (gizonak/emakumeak) | 71.202 / 93.702 | | | |
| Hazkunde begetatiboa, lurralde historikoaren arabera | (2020) | | | |
| | Ar: -869 | | | |
| | Bi: -5.925 | | | |
| | Gi: -2.714 | | | |
| Biztanleria aktiboaren ordezte-indizea | (2021) 1,47 | | | |
| Biztanleria aktiboaren eta ez-aktiboaren arteko oreka | (2022, 1. hiruh.) 1,29 | | | |

| B. HELBURUEN ADIERAZLEAK | | | | |
|---|---|-------------|-------------|-------------|
| | Jatorria | 2024 | 2027 | 2030 |
| 1.1. Emantzipatzeko batez besteko adina | (2019) 30,2 | | | |
| 1.2. Emantzipazio-adin ideala, gazteen iritzia (15-29 urte) | (2020) 24,5 | | | |
| 1.3. Gazteen emantzipazio-tasa (18-34 urte) | (2020) % 35,1 | | | |
| 2.1. Jaiotza-tasa, lurralde historikoaren arabera | (2020) Ar: 7,26 Bi: 6,41 Gi: 7,01 | | | |
| 2.2. Lehen seme-alaba izateko batez besteko adina, lurralde historikoaren arabera | (2020) Ar: 31,68 Bi: 32,32 Gi: 31,95 | | | |
| 2.3. Ugalkortasun-adierazle koiunturala, lurralde historikoaren arabera | (2020) Ar: 1,29 Bi: 1,19 Gi: 1,32 | | | |
| 3.1. Bizi-itxaropena jaiotzean, sexuaren arabera | (2019) G. 80,9 E. 86,7 | | | |
| 3.2. Desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena, sexuaren arabera | (2018) G. 70,5 E. 72,8 | | | |
| 3.3. Benetako erretiro-adina | (2021, 3. hiruh.) 64,2 | | | |
| 4.1. Immigrazio-tasa | (2019) 15,8 | | | |

| B. HELBURUEN ADIERAZLEAK | | | | |
|--|---|-------------|-------------|-------------|
| | Jatorria | 2024 | 2027 | 2030 |
| 4.2. Atzerriarekiko migrazio-saldoa, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera | (2020) Ar: G. 351 Ar: E. 443 Bi: G. 1.902 Bi: E. 2.330 Gi: G. 1.165 Gi: E. 1.362 | | | |
| 4.3. Biztanleria jaioterri-talde handien (kontinenteak) arabera | (2022, 1. hiruh.) Europa: 47.504 Afrika: 54.776 Amerika: 133.860 Asia: 16.454 Ozeania: 444 Guztira: 253.038 | | | |
| 5.1. Biztanleria-dentsitatea, lurralde historikoaren arabera | (2019) Ar: 109,2 Bi: 517,0 Gi: 362,3 | | | |
| 5.2. Landa-eremuetan bizi diren biztanleen ehunekoa | (2021) % 3,80 | | | |

B. HELBURUEN ADIERAZLEAK

| | Jatorria | 2024 | 2027 | 2030 |
|---|---|-------------|-------------|-------------|
| 5.3. Lehen sektorearen ehunekoa/BPG (guztizko enpleguaren gaineko banakapena) | (2020) BPG: % 0,79 Enplegua, guztira: % 1,71 | | | |

C. FUNTSEZKO FAKTOREEN ADIERAZLEAK

| | Jatorria | 2024 | 2027 | 2030 |
|--|--|-------------|-------------|-------------|
| 1.1. Gazteen okupazio-tasa (16-29 urte) | (2022, 1. hiruh.) % 42,9 | | | |
| 1.2. Gazteen langabezia-tasa (16-29 urte) | (2022, 1. hiruh.) % 14,6 | | | |
| 1.3. Gazteen behin-behinekotasun tasa (16-29 urte) | (2021) % 65,5 | | | |
| 1.4. Aldi baterako kontratuetatik mugagabeko kontratuatarako trantsizio-tasa (16-29 urte) | (2021) % 3,1 | | | |
| 1.5. Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleriaren tasa (30-34 urte) | (2020) % 59,6 | | | |
| 1.6. Unibertsitate-ikasketak amaitu eta 3 urtera graduatu berrien (20-34 urte) okupazio-tasa | (2020) % 80,7 | | | |
| 2.1. Alokairu-erregimeneko familien ehunekoa | (2020) % 14,6 | | | |
| 2.2. Alokairuko etxebizitza librea eskuratzeko finantza-ahalegina (18-29 urte) | (2020) % 61,7 | | | |
| 2.3. Seme-alaba bakoitzeko jaiotza-tasarako laguntzen batez besteko guztizko zenbatekoa | (2020) 796 | | | |
| 2.4. Kontziliazio-neurriak dituzten hirugarren sektore sozialeko enpresen eta erakundeen kopurua | (2021) 25 | | | |
| 2.5. Eskola uztearen tasa | (2020) % 6,5 | | | |
| 2.6. 2 urteko haurren eskolatzeta-tasa | (2019) % 93,1 | | | |
| 3.1. Zahartze-indizea, lurralde historikoaren arabera | (2021) Ar: % 139,07 Bi: % 168,18 Gi: % 153,46 | | | |
| 3.2. Zahartze aktiboaren indizea | (2020) 37,3 | | | |

| C. FUNTSEZKO FAKTOREEN ADIERAZLEAK | | | | |
|--|---|------|------|------|
| | Jatorria | 2024 | 2027 | 2030 |
| 3.3. Mendekotasun-tasa, lurralde historikoaren arabera | (2021) Ar: % 60,06 Bi: % 60,24 Gi: % 61,43 | | | |
| 3.4. Etxeko pertsona helduen zaintzan partaide bakoitzak egunean batez beste ematen duen denbora, sexuaren arabera | (2018) G: 2:09 E: 2:05 | | | |
| 3.5. Erosteke ahalmenaren parekotasunean gizarte-babesean egindako gastu publikoa | (2018) 9.022€ | | | |
| 3.6. Gizarte Zerbitzuen Euskal Zerbitzuak komunitatean dituen plazen ehunekoa (egoitza-zentroetako plazak kontuan hartu gabe) Gizarte Zerbitzuen Euskal Zerbitzuak kontingentziengatik dituen plaza guztiei dagokienez | (2019) Mendekotasuna: % 29,0 Bazterketa: % 79,6 Babesgabetasuna: % 13,6 Desgaitasuna: % 62,8 | | | |
| 4.1. Biztanleria etorkinaren okupazio-tasa sexuaren arabera | (2020) G: % 60,5 E: % 48,8 | | | |
| 4.2. Etorkinen langabezia-tasa sexuaren arabera | (2020) G: % 18,4 E: % 23,0 | | | |
| 4.3. Atzerritar jatorriko (16-66 urte) biztanle landunen ehunekoa, lanbide/okupazio motaren arabera | (2018) Zuzendaria/teknikaria % 15,3 Lang. Kualifikatua % 54 Lang. Ez-kualifikazioa % 27,4 Bestelakoa: % 3,3 | | | |
| 4.4. Emakume etorkinen jaiotza-tasa | (2020) 22,72 | | | |

C. FUNTSEZKO FAKTOREEN ADIERAZLEAK

| | Jatorria | 2024 | 2027 | 2030 |
|---|--|------|------|------|
| 4.5. Datozen 5 urteetan EAEn geratzeko asmoa duten 16 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzaren, enpleguaren eta gizarte-harremanen arloko itxaropenen eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera | (2018) | | | |
| | <u>Etxebizitza</u> | | | |
| | Mendebaldeko EB: % 11,4 | | | |
| | Europako beste herrialde batzuk: % 26,5 | | | |
| | Latinoamerika: % 20,67 | | | |
| | Afrika: % 12,32 | | | |
| | Txina: % 15,0 | | | |
| | Munduko gainerakoa: % 16,3 | | | |
| | <u>Hobekuntzak enpleguan</u> | | | |
| | Mendebaldeko EB: % 20,7 | | | |
| | Europako beste herrialde batzuk: % 49,9 | | | |
| | Latinoamerika: % 56,30 | | | |
| | Afrika: % 58,81 | | | |
| Txina: % 19 | | | | |
| Munduko gainerakoa: % 44,9 | | | | |
| <u>Tokiko biztanleriazioa</u> | | | | |
| Mendebaldeko EB: % 0,6 | | | | |
| Europako beste herrialde batzuk: % 5,8 | | | | |
| Latinoamerika: % 8,10 | | | | |
| Afrika: % 7,40 | | | | |
| Txina: % 16,5 | | | | |
| Munduko gainerakoa: % 7,40 | | | | |

| C. FUNTSEZKO FAKTOREEN ADIERAZLEAK | | | | |
|---|--|------|------|------|
| | Jatorria | 2024 | 2027 | 2030 |
| 4.6. EAEn jaio eta atzerritik Euskadira itzultzen diren pertsonen (18-34 urte) ehunekoa aldi horretan atzerrira emigratzen duten EAeko gazte guztiekiko, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. | (2020) Ar: G. % 53,8 Ar: E. % 38,5 Bi: G. % 58,2 Bi: E. % 38,6 Gi: G. % 60,2 Gi: E. % 56,8 | | | |
| 5.1. Landa-eremuetako biztanleriaren egitura, adin-taldean, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera | (2021) | | | |
| Araba | | | | |
| 19 urtetik beherakoak (gizonak/emakumeak) | 2.959 / 2.714 | | | |
| 20-64 urteko tartea (gizonak/emakumeak) | 9.833 / 8.305 | | | |
| 65 urtetik gorakoak (gizonak/emakumeak) | 3.234 / 3.192 | | | |
| Bizkaia: | | | | |
| 19 urtetik beherakoak (gizonak/emakumeak) | 5.496 / 5.030 | | | |
| 20-64 urteko tartea (gizonak/emakumeak) | 16.980 / 16.445 | | | |
| 65 urtetik gorakoak (gizonak/emakumeak) | 5.497 / 6.798 | | | |
| 5.2. Landa-eremuen zahartze-indizea, lurralde historikoaren arabera | (2021) Ar: % 113,27 Bi: % 116,81 | | | |
| 5.3. Gizarte Segurantzaren izena emandako lehen sektoreko enpresen kopurua | (2018) 971 | | | |
| 5.4. Landa-eremuak sustatzeko laguntzen zenbateko osoa | (2022) 50.400.000€ | | | |

C. FUNTSEZKO FAKTOREEN ADIERAZLEAK

| | Jatorria | 2024 | 2027 | 2030 |
|---|--|-------------|-------------|-------------|
| 5.5. 5.000 biztanletik beherako landa-eremuetako eraikinen NGA banda zabaleko instalazioaren egoera | (2021) Laguntza publikoa: % 51,34 Instalazio pribatuak: % 27,61 Laguntza publikoa hedatzen: % 19,40 Zerbitzurik gabe: % 1,66 | | | |

